anboto
DURANGALDEKO ASTEKARIA
2017ko apirilaren 21a
15. urtea
673. alea
www.anboto.org
TOKIKOM

## Kultura

'Izotza eta Sua' diskoa aurkeztuko dute Paddy Rekaldek eta Itsuak Plateruenean, domekan > 11



**JAIAK!**
MATIENA
ABADIÑO



# "Adimen handiko pertsonen heren batek eskola porrota du"

Adimen handiko seme-alabak dituzten familien beharrak asetu gura ditu Aupatuz elkarteak. Hala ere, ume hauei hezkuntza sistemaren barruan erantzun bat ematea du helburu nagusi, elkarteko kide den Inma Unzuetaren esanetan. Durangon elkartzen dira, Pinondo Etxean. > 10

Argazkilaria: Lehior Elorriaga

## Aramotzeko txaboletan bizi ziren 16 pertsona kaleratu dituzte

Aramotzeko txabolak bota egin zituzten joan zen eguaztenean. Agindu judizial bidez, bertan bizi ziren 16 pertsona kaleratu ostean, ingurua atontzen ari da udala. Besteak beste, oinezkoentzako ibilbidea eraikiko dute bertan. Udalak dioenez, urtebete zeramaten familia hauen egoerari "irtenbidea" bilatzen, baina ez ei zuten "baliabide horiek jasotzeko baldintzarik bete gura". > 7

## *"Gernikako martxara hainbat herritatik zutabea osatuz heltzea da asmoa"*

J. Idoate eta I. Rodriguez > 6







**Zornotza > 2**
Aldundiak biribilgunea eraikiko du Agria enpresaren aurrean

**Durangaldea > 4**
Berriz eta Zaldibar Euskotrenen 4. zonaldean daude berriro

**Izurtza > 8**
Etxebizitza tasatuak eraikitzeko pausoak ematen ari da udala

**Garai > 9**
22 postu ipiniko dituzte domekako, Landare Azokan

## Herririk herri

# Aldundiak biribilgunea egingo du Agria enpresaren inguruan

Berna eta Bernabeitiko auzotarrek amaitutzat eman dituzte protesta saioak




Berna eta Bernabeitiko auzotarrak protestan, N-634 errepidean, auzo bietarako sarreran.

**ZORNOTZA** J.D. / J.G.

Azken asteetan, Berna eta Bernabeitiko auzokideek hiru aldiz eten dute trafikoa N-634 errepideko obretan. Protesten bidez, auzo biak "isolatuta" gelditu direla salatu dute. Auzokideek azaldu dutenez, Bizkaiko Foru Aldundiak jakinarazi die 2018an Agria enpresaren parean biribilgune bat eraikiko duela, ibilgailuek noranzkoa aldatu dezaten.

Aldundiaren erantzuna ezagutu eta gero, bi auzoetako bizilagunek mobilizazioak bertan behera uztea erabaki dute. Datorren urtean Aldundiak eraikitzen hastea aurreikusi duen biribilguneagaz, auzokideek ez dute Eubaraino joan behar izango bidearen beste aldera pasatu ahal izateko.

Obrek iraun bitartean lerro etena jarriko diete errepidean. Auzokideek "pozik" hartu dute erabakia. Hala ere, Aldundiak emandako konpromiso hori "idatziz jasotzea" gurako luketela azaldu dute.

## Ganeko igerilekuak berriztatzeko lanak, abian

**ZORNOTZA** J.D.

Ganeko igerilekuak berriztatzeko lehenengo fasea martxan da. Orain berdeguneak handitzen eta igerilekuetan hobekuntzak egiten ari dira. Uda aurretik aldageletan ere hobekuntzak egitea aurreikusita dago. Uda ostean, hauek guztiz berriztatuko dira, 571.000 euroko aurrekontuagaz. Elkarren ondoan egongo diren hiru eraikin egingo dituzte, nagusi biak aldagela eta dutxenak izango direlarik. Guztira, 452 m2-ko azalera izango dute.



Aldagela berriek izango duten itxura.

## Hamaika kirol probatzeko aukera Erreka Kaleko jaietan

**ELORRIO** M.Z.

Atzotik jai-giroan murgildulta dabiltza Elorrion, Erreka Kaleko jaiak ospatzen. Aurten hainbat kirol probatzeko aukera izango dute elorriarrek, Gure Esku Dago dinamikari esker.

Domekan, Elorrioko zenbait gunetan hainbat kirol egin ahal izango dituzte elorriarrek, 9:00etan hasita

Domekan, 9:00etan hasita, herritarrek gustuko duten kirola egin ahal izango dute herriko zenbait tokitan.

Bestalde, asteburu guztian, zenbait taldek herriko plaza, kaleak eta gaztetxea girotuko dituzte. Zapatuan, ohitura den lez, herriko plazan bigarren eskuko azoka eta pilota partiduak egongo dira.

# Jendetza batu du Askondoko aterpearen inaugurazioak

Askondon berriztu dituzten 850 metro koadroetatik 350 estali dituzte



Apirilaren 11n egin zuten inaugurazio ekitaldian iturriak martxan jarri zituzten bertaratu ziren umeen gozamenerako.

**IURRETA** Jone Guenetxea

Zabalik dute Askondoko aterpea iurretarrek. Apirilaren 11n egin zuten inaugurazio ekitaldia, eta jendetza batu zen. Iñaki Totorikaguena alkatearen berbetan, "gizarte bizitzarako espazioak berreskuratu" gura izan dituzte.

Orain aterpea dagoen inguru horretatik 800 bat ibilgailu pasatzen ziren, eta %80 herrigunera zihoazen. Halaxe gogoratu zuen alkateak. Herrigunean ez dutela espazio estalirik izan adierazi zuen, eta horrek asko "mugatu" dituela, "batez ere, euria egiterakoan". Askondon berriztu dituzten 850 metro koadroetatik 350 estali dituzte. Barruan, jolasguneak, jarlekuak eta iturriak jarri dituzte. Eskaladarako gunea eraikitzea ere bada asmoa.

## XXV. Castet Eguna egingo dute domekan

**ZALDIBAR** I.E.

Faxismoaren kontrako borrokan eta Euskal Herriaren eta askatasunaren alde hildakoak omentzeko, XXV. Castet Eguna antolatuko dute, domekan. 10:00etan elkartuko dira Zaldibarko udaletxean, eta, 12:00etan, Santamañezarren ipinitako monolitoan oroimen ekitaldia egingo dute faxismoak hildako zaldibartarrak oroitzeko. Apirilaren 25ean 80 urte beteko dira Santamañezar mendiko borrokaldian 40 gudari eta miliziano hil zirela.

anboto komunikabideak
Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org
2017ko apirilaren 21a
14. urtea - 673. alea
**Lege gordailua:** BI-2268/01
**ISSN:** 1578-7028
**Tirada:** 11.500 ale

**Zuzendaria:** Jone Guenetxea Arrinda.
**Erredakzio burua:** Markel Onaindia Txabarri.
**Administrazio burua:** Itziar Belar Zubizarreta.
**Administrazioa:** Miren Abasolo Txabarri.
**Publizitatea:** Itxaso Martinez de Arenaza Yarza eta Nagore Txintxurreta Isasi.
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri Gandiaga, Itsaso Esteban Urtiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, eta Maialen Zuazubiskar Gallastegi.
**Maketazioa:** Eider Alberdi Bengoa.
**Zuzentzailea:** Mikel Azkarraga Etxegibel.

**Laguntzaileak:**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Bizkaia foru aldundia diputación foral
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

# Zortzi sindikatutako beharginek bat egin dute herri kontsultekin

## Aste bi baino ez dira falta herri galdeketetarako

**DURANGALDEA** M. Onaindia
ELA, LAB, CCOO, UGT, CGT, STEE-EILAS, EHNE eta HIRU sindikatuetako hainbat beharгin zein ordezkarik bat egin dute maiatzaren 7ko herri galdeketekin. Atzo elkarretaratze bat egin zuten Durangoko Ezkurdin, atxikimenduaren berri emateko. Hainbat dira galdeketei babesa erakutsi dieten eskualdeko enpresa batzordeak.

Aste bi baino ez dira falta Gure Esku Dagok deitutako herri kontsultetarako, eta sindikatuena ez da azken egunetan jasotako babes bakarra. Esaterako, Zornotzan, errugbilari eta pilotariek euren adostasuna erakutsi dute talde argazkiak eginda. Durangon, bestalde, baiezkoa bozkatzearen aldeko kanpaina hasi dute zenbait gaztek, eta 29an bazkaria egingo dute.

Durangon, Zornotzan, Elorrion, Abadiñon eta Zaldibarren egingo dira galdeketak maiatzaren 7an.



Sindikatuetako kideek elkarretaratzea egin zuten atzo, Durangon.


Duela aste bi egin zuten jaialdiaren aurkezpena, Elorrioko Ateneoan.

# Pirritx, Porrotx eta Marimototsegaz jaialdia egingo du Berton Bertokoak

## Jangeletan bertakoa eta sasoikoa jatea aldarrikatuko dute ekainaren 10ean

**DURANGALDEA** M. Onaindia
Durangaldeko ikastetxeetako jangeletan bertakoa eta sasoikoa jatearen aldeko jaialdia prestatzen dabiltza Berton Bertokoa dinamikako kideak. Ekainaren 10ean izango da, Abadiñon, eta Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak izango dira eguneko izarrak. Eurez gainera, jolasak, puzgarriak, bazkaria, eta Dj Bullen musika iragarri dituzte, besteak beste.

Berton Bertokoako kideek azaldu dute jantokien legea aldaraztea dela euren helburua, ikastetxeetan bertan ereduaz erabaki ahal izateko. Izan ere, "ez digu uzten guri aukeratzen", salatu dutenez. Duela 17 urte onartu zen legea, eta hori aldatzeko ordua dela uste dute. Ordutik, "kalitatea bajatu" egin dela salatu dute. "Durangaldeko eskoletan berton bertokoa eskaintzen hasteko garaia da", adierazi dute.

Bederatzi guraso elkarteek parte hartzen dute mugimenduan. Eskola kontseiluez gainera, EHIGE, BIGE, Sortzen eta Gure platera gure aukera elkarteen babesa dute.



# Berrizen eta Zaldibarren tarifikazioaren inguruko batzar informatiboak egingo dituzte

## Aldundiak hartutako erabakiaren inguruko xehetasunak jakinaraziko dituzte gaurko batzarretan



Erabiltzaileek protesta jendetsuak egin dituzte azken asteetan.

**DURANGALDEA** J. G. / M.O.

Zaldibarko Udalak trenaren tarifikazio berrien inguruko batzar informatiboa egingo du, gaur, 19:00etan, udaletxeko plazan. Berrizen, aldiz, geltokiko plazan bilduko dira, 19:00etan, udal arduradunek azaldu dutenez. Aldunditik etorritako azken berriak herritarrei jakinaraztea da bi batzar hauen helburua.

Maiatzetik aurrera, Bizkaiko Foru Aldundiaren esanetan, Berriz eta Zaldibar Euskotreneko laugarren zonaldera bueltatuko dira berriro. Martxo hasieran eman zen jakitera bosgarrenera pasatu zituztela, eta herritarren eta udalen protesten ostean, hilabete eskasera atzera bota dute; presioak geratu du tarifikazio berria. Urtebetean bigarrenez gertatu da gauza bera. Hala ere, neurria ez da behin-betiko; Bizkaiko Mugikortasun Agintaritzak azterketa orokor bat garatuko du, eta horren baitan ikusiko dute gai honegaz zer egin.

Treneko erabiltzaileentzat prezio igoera zekarren zonifikazio berriak, batez ere Durangorako bidaietan. Horregatik, astero mobilizazio jendetsuak egin dituzte herritarrek, ehunka lagun batzeraino. Esaterako, ordaindu bako bidaiak egin dituzte, baita trena gelditu ere.

Hain zuzen, Berrizko eta Zaldibarko udalek eskertu egin dute herritarren lan hori: "Eskertzekoa da mobilizazioetan herritarrek egindako lana. Lorpen hau guztion elkarlanagaz lortu da, erakunde eta herritarren artekoagaz".

# Berano Txikin auzoko jaiak ospatuko dituzte

## Agarrerako lasterketa bitxia da ekintzetako bat

**MALLABIA** J. Derteano

Berano Txiki auzoan San Jurki jaiak ospatuko dituzte asteburu honetan. Bihar, 19:00etan, txopoa jasota hasiko dituzte jaiak, eta ostean afaria egongo da auzokoentzat.

Domekan 11:00etako mezagaz hasiko dute eguna. Segidan, gazteen arteko desafioa antolatu dute, eta askotariko jokoak ere egongo dira: lapiko apurtzea, oilo harrapaketa… Salda eta txorizo pintxoak doan banatuko dituzte bertaratzen direnen artean. Arratsaldean, 17:30ean, lasterketa bitxi batean parte hartzeko aukera egongo da. Ermitan hasi eta Agarre izeneko baserri batera joan-etorria egin beharko dute parte-hartzaileek. Antolatzaileek denbora bat markatuko dute joan-etorri hori egiteko eta, datu hori jakin barik, ezarritako denborara gehien hurreratzen denak irabaziko du lasterketa. 18:30ean hasiko den magia ikuskizunagaz amaituko dituzte jaiak.

# XXII. Mendi Ibilaldia egingo dute, hilaren 29an

**BERRIZ** M.Z.

Ohitura bilakatu den lez, hilaren 29rako mendi ibilaldia antolatu dute Berrizen. Beste behin, Gernikan hasi eta Oiz igo ondoren, Berrizen bukatuko dute ibilaldia.

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, Gernikara joateko autobusa 7:00etan irtengo da Berriztik, eta Elorriotik eta Durangotik ere pasatuko da. Bestalde, mendi ibilaldia egiteko, hilaren 26a baino lehen izena eman beharko dela eta bazkaltzeko aukera ere egongo dela jakitera eman dute.

# Luhartzen erromeria biharko Udaberri jaian

## Gaztetxoen pilota partiduekin hasiko dute eguna

**OTXANDIO** J.Derteano

Hainbat urtetako ohiturari eutsiz, Otxandioko tabernariek Udaberri Jaia antolatuko dute zapatuan. Hainbat ekintza izango dira eguerditik gauera.

Otxandioko pilota eskolak gaztetxoen pilota partiduak antolatuko ditu 13:00etan, plazako pilotaleku irekian. Ostean, arratsaldean zehar, 17.00etatik 20:00etara, umeen puzgarriak jarriko dituzte udaletxe pareko plazan. Iluntzean musika izango da protagonista, Iurretako Luhartz taldearen erromeriagaz. 20:00etatik 21:30era eskainiko dute lehenengo saioa. Ondoren, 23:30ean, berriro itzuliko dira eszenatokira erromeriagaz jarraitzeko.

> Arratsalde osoan umetxoentzako puzgarriak egongo dira udaletxe pareko plazan



# IBAIZABAL IKASTOLAN...POZIK!

Konfiantzazko irakaskuntza, lehenengo pertsonan



Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta profesionaltasun ziurtagiriak zerbitzuekin uztartzen dituen eremu anitza da Ibaizabal. Errealitate berezia, jarduera desberdinek (gimnasioa, aterpetxea eta ostatua) bat egiten baitute eskaintza akademikoagaz. Aniztasunak aberasten du leku hau, eta etorkizuneko hiritar euskaldun eta jantziak hezten ditu ezinbestean. Bizitzari indiferentziaz behintzat begiratuko ez dioten euskal herritarrak. Hona hemen norantza horretan eragiten duten gako batzuk:

### Batxilergoa: Erabakiak hartzeko tarte hori

Erabaki garrantzitsuak hartu behar dira batxilergoan. Horregatik, batxilergoa hasten duen lehenengo egunetik, bere norantza akademikoaren gaineko kontrola ikasleak berak eraman behar duela uste dugu, erabaki garrantzitsuak autonomiaz eta heldutasunez har ditzan. Bidean, ikaslea babestuta eta indartsu sentitzeko helbururako lana egingo dugu guk, gertu gertutik.

Izan ere, tematuta gaude ikaslea ondo sentitu dadin. Horretarako, ikaslearen jarraipena berezia da Ibaizabalen: irakasle guztiak tutore dira, eta bakoitzak ikasle kopuru txikia dauka. Familiek, irakasleek eta ikasleek elkarlanean funtzionatzen dute. Ondorioz, ikasle bakoitzak, bere bidelagun izango den irakaslea izango du erreferentzia legez lehenengo egunetik.

Horretaz gain, ikasgai desberdinetako prozedura eta edukiak indartzeko errefortzu sistema jartzen dugu ikasleen eskura Ibaizabalen. Errefortzu saioak eska ditzakete, ikasturtean zehar hutsuneak osatzen joan ahal izateko.

Neurri hauek guztiek bere fruituak ematen dituzte. 34 ikaslegaz hasi zen ikastola, eta gaur egun 300 ikasle baino gehiago ditugu. Matrikularen goranzko joerak epe ertainean jarraitu egingo duela aurreikusten denez, laugarren lerroa zabaldu dugu. Honi erantzuteko, 1.000 m2ko eraikin berria inauguratu genuen 2013ko irailean.

### Orientazioaren garrantzia

Ikasketa prozesua ikaslearengandik abiatzen da. Norberaren asmoak identifikatu eta horiek lortzeko eskuratu beharreko lanabesak lor ditzaten lan egiten uzten diegu. Eta hori guztia orientazio egoki bategaz gauzatzen da. Aukera akademiko zein laboralen gainean informazio osoa jasotzen dutela ziurtatuko dugu.

Horretarako, ikasle ohien eta inguruko Unibertsitateetako adituen testigantzak ekartzen ditugu, Unibertsitate eta ikastetxeetara irteerak eta aurkezpenak edo gure trebakuntza eskaintza teknikoak jartzen ditugu haien eskura. Helburua argia da: Ikaslea %100ean trebatzea hemendik ateratzean dagokion bidea ondo egin dezan. Ikasleak akademikoki zein sozialki jantzita eta konpetente prestatzea, alegia.

### Lanbide heziketa arautu eta ez arautu

Lanbide heziketaren alorrean, Haur Hezkuntzako Goi Mailako Zikloa eskaintzen da Ibaizabalen. Ziklo honek haurtzaindegietako teknikari lana egiteko zein Unibertsitatean ikasteko aukera zabaltzen du. Horretaz gain, ikastolaren izaera profesional eta teknikoa sakondu duen Hobetuz eta Lanbideko prestakuntza eskaintza zabala du Ibaizabalek.

### Ibaizabal+ elkarreragineko espazioa

Ezin dugu hezkuntza ulertu barneko eremu isolatua bezala. Hezkuntzatik abiatzen dugu gure ekarpena, baina aldi berean eragileak gara. Euskalgintzan, herrigintzan, kulturgintzan… euskal nortasuna oinarri izanik, mundura zabalik dagoen ikuspegia lantzen dugu. Jendartearen erronka eta ametsen parte izan nahi dugu. Ikastola soil batetik haruntzago joan nahi dugu, eta gure ingurua eraldatu.

Zentzu horretan, ezinbestekoa deritzogu ikaslea bera ere erabaki eta eztabaida guneetan egotea. Ikasle kontseiluan proposamenak eginez, iritzi eta proposamenak Irakurrixu aldizkarian plazaratuz edo tertulia eta eztabaida foroetan parte hartuz. Ikastola auzolanean ulertzen dugu nahitaez. Beraz, gutariko bakoitzak bere ekarpentxoa egin dezakegu Ibaizabal ikastolan. Izan ere, kooperatiba gara, gurasoek eta ikasleek zuzeneko esku hartzea dutelarik ikastolako erabaki nagusietan.

Nahi baduzu, ezagutu gaitzazu ate irekien saioetan.

Bazatoz Ibaizabalera?

ibaizabal IKASTOLA
– Konfidantzan, ikastola –

idazkaritza@ibaizabalikastola.eus
Tel.: 946 215 877
www.ibaizabalikastola.eus

**BATXILERGOA**
**Aurrematrikula epea:**
maiatzaren 2tik 12ra
**Ate irekien eguna:**
maiatzaren 2an, 18:00etan

**HAUR HEZKUNTZAKO GOI MAILAKO ZIKLOA**
**Ate irekien eguna:**
maiatzaren 24an, 18:30ean

## ibaizabal IKASTOLA — DOAKO IKASTAROAK

## 2016-2017 IKASTURTEKO IKASTAROEN ESKAINTZA

| PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIA | |
|---|---|
| Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunaren sustapena | HOBETUZ |
| Ur instalazioetako sorospena | LANBIDE |
| “Atención Sociosanitaria a personas dependientes en instituciones” | LANBIDE |
| Lan orientazioa eta Lanbide Heziketako enpleguaren kalitatea sustatzea | LANBIDE |
| Gatazken prebentzioa | LANBIDE |
| Enplegurako prestakuntza ekintzen programazio teknikoa | HOBETUZ |
| Ur eremu naturaleko sorospena | LANBIDE |
| **ESKAINTZA IREKIA** | |
| Sare sozialak enpresaren komunikaziorako tresna | HOBETUZ |
| Hezkuntzarako google tresnak eta web aplikazioak | HOBETUZ |
| Psikomotrizitatea nagusientzat | HOBETUZ |

ibaizabal · Lanbide · Hobetuz



# “Errefuxiatuen eskubideen defentsan denon indarrak batu gura ditugu Gernikako martxan”

## Gernikako martxan parte hartzeko deia egin dute Durangoko Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformako kideek

**DURANGO** M.O.

**Apirilaren 29an eta 30ean errefuxiaten egoera salatzeko ekitaldia antolatuko dute Gernikan. Durangoko Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformak antolaketan parte hartzen dihardu.**




Julene Idoate eta Isabel Rodriguez, Durangoko Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformako kideak.

**Ekitaldia antolatzeko, zergatik aukeratu duzue Gernika?**

**Julene Idoate:** Gernikako eta beste hainbat udalerritako bonbardaketen 80. urteurrena delako sortu zen ideia. Gure herrietatik ihes egin behar izan zuten pertsonak gogoratu, eta gaur egun ere gerrarengatik ihes egin behar duten pertsonak daudela gogoratzeko. *Gerrarik ez!* eta baita Euskal Herria harrera herri aldarrikatzeko baliatuko dugu.

**Isabel Rodriguez:** Durango ere bonbardatu zuten, eta herritar asko beste herrialde batzuetara joan behar izan zen. Eta haiei harrera egin zieten. Beraz, Gernika eta Durango harrera herriak izan beharko lirateke.

**Zelan joango zarete Gernikara?**

**Isabel Rodriguez:** Zapatuan ideia da Euskal Herriko hainbat herritatik Gernikara heltzea, zutabea osatuta, inbasio isil bat lez. Oinez joango garenok Durangoko Andra Maritik 08:00etan irtengo gara Zornotzara joateko. Zornotzan hasi gura dutenek 10:15ean dute hitzordua, trenean joateko. Horrela, 11:00etan, Zornotzakoekin eta Lemoakoekin oinez joango gara. Bizikletaz 11:30ean Zornotzatik irten daiteke. Zugastietan bazkalduko dugu, eta 16:00etan Muxikan batuko gara, 17:00etarako Gernikan sartzeko.

**Gernikara zelan sartuko zarete?**

**J.I.:** Lea Artibai, Bilbo eta beste inguru batzuetako pertsonekin batuko gara aldi berean. Astratik martxa isila abiatuko dugu. Ondoren, ekintza politiko bat egingo dugu. Helburua da salaketa politikoa egitea. Gobernuaren geldotasuna salatu gura dugu. Hitzez gauza asko esan arren, ez dute mugimendurik egiten. Era berean, gerra gogoratu gura dugu, pertsonek zergatik egin behar duten ihes beraien herrialdeetatik. Edozelan ere, ekitaldi hunkigarria eta sinbolismoz betea izango da.

**Martxa horren isiltasuna ere sinbolikoa izango da?**

**I.R.:** Errefuxiatuen egoera isilean gertatzen ari da. Gertatzen ari dena hedabideetan azalean egon beharko litzateke egunero, eta ez da horrela. Egunero errefuxiatuak beraien etxeetatik irteten ari dira. Horregatik espero dut martxa masiboa izatea, eta honegaz kontzientziak mugituz pertsona hauen egoera aldatzea.

**Ekitaldiaren ostean, zein egitarau egongo da?**

**J.I.:** Kontzertuak eta zinea egongo dira. Gainera, lo egitera gelditu gura dutenentzat ere gune bat egokituko da. Boluntarioen sare zabal bati esker oso ondo planifikatuta egongo da. Horrela, zapatuko ekitaldiaz gain, gune bat sortu gura dugu eztabaidarako eta alternatibak sortzeko. Asteburuan aditu askok parte hartuko dute. Inaugurazio ekitaldian, esaterako, Piedad Cordoba egongo da. Kolonbiako bake prozesuan parte hartu du. Ildo horretatik, domekan tailerrak eta esperientzia mahaiak egongo dira.

**Jendea mobilizatzea ez da erraza izaten. Sumatzen duzue errefuxiatuen egoerareko sentsibilizazioa?**

**J.I.:** Gerraren kontra gaudela entzuten dut inguruan, baina gero kosta egiten zaigu mugitzea. Azpimarratu egin gura nuke ekitaldi hau berezia izango dela errefuxiatuen eskubideen alde denon indarrak batzeko. Herritar moduan ez bagara kexatzen, agintariek ez dute legerik aldatuko. Bestalde, gatazka honen oinarrian patriarkatua dago, eta konponbiderako alternatibak feminista izan behar du.

**Durangora orain dela aste batzuk heldu ziren errefuxiatuen harreraren inguruan, zein balorazio egiten duzue?**

**J.I.:** Plataforma oso anitza da, eta iritzi ezberdinak izan ditugu gai honen inguruan. Hala ere, oinarrizko puntu batzuetan adostasunera heldu gara. Uste dugu ez zela errespetatu pertsona hauen intimitatea, batez ere adin txikikoak egonda. Gai delikatua da, eta informazio kontrajarria kaleratu zen. Horrelako beste kasu batzuk badaude, zentzuz jokatzea eskatzen dugu.











Hondeamakina bik ingurua atontzen jardun dute Aramotzen.



Kaleratutako hainbat lagun ondoko parkean batu ziren.

# Aramotz auzoko txaboletan bizi diren hamasei pertsonak kaleratu egin dituzte

## Eguaztenean agindu judizial bidez txabolak hustu ostean, hondeamakinek lanei ekin zieten

**DURANGO** M.O. /J.D./J.G.

Aramotzeko txabolak bota egin dituzte asteon. Eguaztenean, 07:00etan, agindu judizial baten bidez, eraikin horietan bizi ziren pertsonak kalera atera zituzten, hondeamakinak sartu ahal izateko. Txaboletan bizi ziren hamasei pertsonak kaleratu egin zituzten. Goiz horretan, euretako asko txabolen ondoko parkean bildu ziren, "zer egin" erabaki arte. Kaleratutako pertsonek momentu horretan azaldutakoaren arabera, 07:30ean pertsona bat auzitegietako paperekin txaboletara joan zen, udaltzainek babestuta, handik irten egin behar zutela jakinarazteko. Horrela, bost familia atera egin zituzten txaboletatik. Gaineratu zutenez, orain hile bi udal ordezkariekin batzartu ziren. "Txaboletatik joan egin behar genuela esan ziguten, irtenbiderik eman barik", azaldu zuten kaleratutako familiek.

### Udalaren jarrera

Udal arduradunek azaldu dutenez, urtebete zeramaten instituzioen arteko elkarlanean familia hauen egoerari "irtenbidea" bilatu nahian. Durangoko Udala, Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia eta Amankomunazgoa batu izan dira gaia lantzeko. Gizarte laguntzaileagaz ere batzartu dira. Udaletik diotenez, plan bat egin zuten pertsona hauei integraziorako baliabideak eskaintzeko. "Baliabide horiek jasotzeko baldintzarik ez zuten bete gura", gaineratu dute udaletik. Txaboletatik botatako familiei zein auzokideei eraikin horiek laster botako zituztela jakinarazi dietela dio udalak.

### Lehenengo abisua

Otsailaren 2an udalak txabolak botatzeko lehenengo saiakera egin zuen. Orduan, txaboletan bizi ziren lagunek esan zuten pertsona gehiago egon zirela han bizitzen, baina Errumaniara bueltatu zirela. Datuen segurtasuna eduki barik, txabolak ez botatzea erabaki zuten udalaren izenean joan zirenek. "Indarrez desalojatzea saihestuta, pertsona hauen giza eskubideak eta duintasuna bermatu gura ditugu", esan zuen udalak otsailean prentsa ohar bidez.

Zortzi urtez txabola hauetan bizitzen egon ostean, kaleratutako pertsona batzuek inguruko zubi baten azpian eman zuten gaua.

### Auzokideen eskaera

Aramotzeko auzokideek txabolak bertatik kentzeko eskaria egin izan dute prentsaren aurrean, eta azkenaldian kartelak ere ipini dituzte udalari ardura eskatzeko.

Aramotzen egiten diharduten lan hauek hobekuntzak egiteko aprobetxatuko dituztela dio udalak. Sasiak garbitu eta ingurua atontzeaz gainera, oinezkoentzako ibilbide "atsegin bat" eraikiko dute. Sarbideak konpondu egingo dituzte eta inguruetan dauden zuhaitzen ale berriak landatuko dituzte. Proiektu honetara 48.842,97 euro bideratu ditu udalak.

# Gorka Fraile presoa askatzea eskatuko dute mosaiko bategaz

## 2015ean minbizia topatu zioten Fraileri; gaitza berragertzeko kezka dute

**DURANGO** M.O.

Sare mugimenduak deituta, Gorka Fraile preso durangarra askatzea eskatuko dute domeka honetan, mosaiko baten bidez. 12:30erako egin dute deialdia, Andra Marian. 2015ean minbizia topatu zioten Fraileri, eta ebakuntza egin eta gero, momentuz egonkor dagoela diote senideek. Baina gaitza berragertzeko kezka dute. Frailek berak Euskal Herrira hurreratzeko eskaera egin du Auzitegi Konstituzionalean, baina ukatu egin diote.

Etxeratek preso gaixoen zerrendan kokatua du Fraile. Egunotan jakin denez, Oier Gomez preso gasteiztarrari sei hileko bizi itxaropena eman diote, eta maiatzaren 6an Sarek antolatutako manifestazioa egingo da Arabako hiriburuan, bere askatasuna exijitzeko.



Sarek sustatuta, 2015ean ere mosaiko bat egin zuten Durangon.

# Bilbo eta Durango artean, 20 minutuko maiztasuna

## Elorriora doan autobusa hamar gutxitan irtengo da; orduro beste zerbitzu bat gehituko dute

**DURANGO** M.O.

Bilbotik Durangorako autobusetan 20 minutuko maiztasuna lortuko da datorren martitzenetik aurrera. Aldundiak aldaketak egin ditu zerbitzuan, astegunetan konexioa hobetzeko asmoz. Horren eraginez, Elorriora doan autobusa hamar gutxitan irtengo da Bilbotik, puntuan beharrean. Orduro, beste zerbitzu bat gehituko dute, ordu eta hamarretan irtengo dena Durangorantz.

Linea horiek konbinatuta, Bilbotik Durangorako autobusa 20 minutuko maiztasunez egotea ahalbidetuko dute. Aldundiaren esanetan, "edukiera eta kalitate handiagoa" lortuko da horrela.

Goizeko lehen orduan eta iluntzean izaten dira batez ere

> Aldundiaren esanetan, "edukiera eta kalitate handiagoa" lortuko da horrela

leku arazoak autobusetan, eta hainbatek zutunik joan behar izaten dute. Goizetan, 15 minuturo daude autobusak Bilbora.

# Etxebizitza tasatuak eraikitzeko baldintza orria onartu dute

## Promotoreak erakartzeko, saldu barik geratu litezkeen pisu batzuk erosteko prest dago udala



Baldintza orria onartu zuten udalbatzarreko irudia; Garauntza inguran 12 bizileku joango lirateke proiektua gauzatuz gero.

**IZURTZA** Joseba Derteano

Gaztelekuaren parean dagoen Garauntza izeneko lurzoruan etxebizitza tasatuak sustatu gura ditu udalak. Azken urteetan populazioan eman den beherakadari aurre egiteko modua da. Hori aurrera eramateko, arazo bat aurkitu dute: berba egin duten promotoreak uzkur agertu dira, gaur egun etxebizitza salmenta ez delako sasoi batean bezain emankorra. Berme batzuk gura dituzte. Horregatik, saldu barik geratu daitezkeen etxebizitza batzuk erosteko prest dago udala. “Promotoreak aurkeztu daitezela bilatzen dugu. Hasieran ez geneukan horrelakorik pentsatuta, baina promotoreekin izandako batzarren ostean ikusi dugu antzerako neurri barik inor ez dela aurkeztuko”, adierazi du Iker Ballarin Gobernu Taldeko zinegotziak. Populazio galeraren aurrean “apustu bat” dela gehitu du Lorea Muñoz Izurtzako alkateak.

Konpromiso hori zein bizilekuak egiteko gainerakoak jasotzen dituen baldintza orria azken udalbatzarrean onartu zuten Gobernu Taldearen (EH Bildu) aldeko botoekin. EAJ abstenitu egin zen. Ez daudela proiektuaren “kontra”, adierazi zuen Oskar Zarrabeitia zinegotziak, baina diru hori konprometitzeak “beldur apur bat” eragiten diela zehaztu zuen.

Udalak Aldundiari galdetu dio zenbateraino konprometitu daitekeen. Udalaren kontuak aztertuta, 608.000 eurora arteko kreditua eskatu dezaketela izan da erantzuna. Horregaz lau bat etxebizitza erosi ditzaketela kalkulatu dute. Hori izango da udala heldu daitekeen kopuru maximoa. “Eraiki ostean, urtebeteko epea dago saltzeko. Epe horren amaieran denak saldu ezik, orduan sartuko ginateke. Orduan ikusi beharko litzakete egoera zelan dagoen”, azaldu du Ballarinek. Edozelan ere, “dirua ez litzateke galduko, udalak beste mota bateko ondasunak izango lituzke, etxebizitzak kasu honetan”, gehitu du. Etxebitzako etxabean lokal bat ere izango luke udalak, lurzoruaren truke.

Promotore baten konpromisoa lortu gura dute, ondoren interesa dutenentzat izen-ematea irekitzeko. “Benetako konpromiso bat gura dugu, interesa duten herritarrei etxeak egingo direla bermatuko diena”.

# Gerediagako ermitara bisitaldia eskainiko dute bihar goizean

## Monumentuen eta Tokien Nazioarteko Egunagaz bat egingo dute ekimenagaz



11:00etatik 14:00etara egongo da ermita zabalik, bihar. Txelu Angoitia.

**ABADIÑO** M.Z./I.E.

Apirilaren 18an egin zen Monumentuen eta Tokien Nazioarteko Eguna, eta efemeride horregaz bat eginda, Gerediagako ermitan ekimen bereziak izango dira bihar. Gerediaga elkartearen eskutik, lehenengoz egingo dute nazioarteko egun horregaz bat, Abadiñoko auzo horretan.

Bihar, 11:00etatik 14:00etara zabalduko dute Durangaldearen historia politikoan garrantzia berezia daukan Gerediagako ermita.

Durangoko Merinaldearen gobernuan garrantzi handia izan zuten hainbat objektu erakusketan ipiniko dituzte, San Salbadore eta San Klementeren ermitan. Durangaldeko merioaren makila, zigilua eta eskribania, XV. mendean Gerediagan batzarrak egiten zirela aipatzen duen eskuizkribua eta Durangaldeko foruaren alea egongo dira ikusgai. Erakusketaren osagarri, Durangaldeko foruen eta ermitaren gaineko azalpenak eskainiko dizkiete Gerediagara doazenei, 12:30ean.

# Astxikiko pagoak eutsi egin dio neguari

## Herritar talde batek birlandatu zuen, irailean

**ABADIÑO** Jone Guenetxea

Astxiki mendiko pagoa jausi egin zen joan zen irailean, haizearen ondorioz. Herritar talde bat mendira igo zen, eta arbola auzolanean birlandatu zuten. Joan zen astean ateratako argazkian ikusten denez, pagoak aurre egin dio neguari, eta hostoak irten zaizkio.

Anbotoko mendikatearen paisaiako elementu bitxietako bat da Astxikiko pagoa. Mendi gailur ondoan, urrunetik ere ikusi edo bereizten den arbola da. Joan zen irailean izandako haizearen eraginez, jausi egin zen pagoa. Urkulu Txiki deitzen da inguru hori, Astxikiko alde batean dago, eta Atxartetik oinez joan daiteke.

Arbola jausi eta gero, herritar talde bat mendira igo zen arbola birlandatzera. 45 laguneko taldeak arbola zutik jarri zuen, auzolanean. Negua pasatuta, Astxikiko arbolak zutik dirau.



Iñigo Atutxa.



# 22 postu ipiniko dituzte domeka honetan, Garaiko Landare Azokan

**Bosgarren ediziora ailegatuko da udalak, Urkiola Landa Garapenak eta Trumoittek antolatzen duten azoka; 10:00etatik 14:00etara izango da**



Iaz ere jende ugari joan zen Garaiko azokara.

**GARAI** Markel Onaindia

Duela bost urte ipini zuten Garaiko Landare eta Lorezaintza Azokaren lehen hazia, eta urterik urte sendotu eta loratu egin da. Etzi bosgarren ediziora helduko da, eta 22 postu ipiniko dituzte 10:00etatik 14:00etara bitartean. Udalak, Urkiola Landa Garapenak eta Trumoittek prestatu dute, nagusien elkartearen laguntzagaz.

Sasoiko loreak, kaktusak, landare txikiak, egurra eta loreak uztartzen dituzten produktuak, lore naturalez eginiko bitxiak, baserri tresnak, produktu ekologikoak eta produktu fitosanitarioak egongo dira salgai, besteak beste. Lehen aldiz, herritarrek kontsigna batean utzi ahalko dituzte erosketak, eguna lasai aprobetxatzeko. Erabiltzaileen artean bazkari bat zozkatuko dute gainera.

> Lehen aldiz, herritarrek kontsigna batean utzi ahalko dituzte erosketak, eguna lasai aprobetxatzeko

Bestalde, eskualdeko hiru baserritarren eskutik gazta, ogia, pastelak eta txakolina lako produktuak dastatu ahalko dira domekan.

### Odriozolaren berbaldia

Informatzeko aukera ere emango dute antolatzaileek. Hernaniko Karabeleko etxaldeko Amaia Odriozola nekazariaren berbaldia egongo da 11:00etan, eta orturako aholkuak ere emango ditu. Karabeleko etxalde esperimental bat da, nekazaritza ekologikoaren bidez errehabilitazio psikosoziala lantzen duena.

## Terrazako ortuak zaintzen ikasteko saioak udaletxean

**MAÑARIA** J.D.

Terrazetan edo balkoietan ortu txikiak izateko ohitura dutenei zuzendutako ikastaroa antolatu du udalak datorren astean. Saio biko ikastaro laburra izango da. Martitzenean eta eguenean aditu batek aholku erabilgarriak eskainiko ditu 18:30etik 20:30era, udaletxean. Izen-ematea oraindino irekita dago udaletik adierazi dutenez.

Bestalde, eguaztenean, liburuaren egunean, haurrentzako tailerrak antolatu dituzte, 17:30ean liburutegian.

## Eman daiteke izena udal etxebizitzetan

**ATXONDO** M.Z.

Arrazolako udal etxebizitzetan berriz ere izena emateko aukera zabaldu du Atxondoko Udalak. Arrazolako udaletxe zaharreko lau etxebizitzetan izena eman gura duenak apirilaren 24tik maiatzaren 5era arte egin ahal izango du eta hiru aukera hauen artean erabaki beharko du: logela bakarreko etxebizitza, bi logelakoa ala hirukoa. Udal etxebizitzen zozketa maiatzaren 9an egingo dute.

### SEI HANKAKO MAHAIA



**JULIAN RIOS**
SQ-2D

**Durangotik Gernikara**

Egunotan Durangoko bonbardaketaren 80. urteurrena gogoratu dugu. Faxistek egindako ekintza koldar eta doilor hartan, Italiako Abiazio Legionarioak, tropa alemaniar eta frankistekin batera, durangarren %5 hil zuen. Ekintza beliko hura aitzindarietakoa izan zen abiazioa erabiltzen hirigune zibiletan erasotzeko. Euren armamentua probatzea, herria metrailatzea eta bonbak erabiltzea zuten helburu, horien artean su-eragileak, ahalik eta triskantzarik handiena eragiteko.

Memoriaren aldeko taldeei esker dugu horren berri; Durango 1936 taldeak egiaren, erreparazioaren eta justiziaren alde egindako lanari esker; eta baita Gerediaga Elkarteko Jon Irazabalen lanari esker ere.

Beharrezkoa dugu historia ezagutzea, *bere historia ezagutzen ez duen herriak berriz bizi dezakeelako hori.*

Apirilaren 26a Gernikako bonbardaketen 80. urteurrena ere izango da, Picassoren *'Guernica'* iradoki zutenena. Orain 80 urteko apirilaren 26an, Gernikak eta Durangok sutan eta odoletan batu zuten euren patua, faxismoaren eskutik.

Apirilaren 29an eta 30ean ekitaldi bat egongo da Gernikan, milioika pertsona ihesean dabiltzan beste *"Guernica"* horietako basakeria amaitu dadin. Europako mugetan gertatzen dabilena beste sarraski bat da. Ezin gara besoak gurutzatuta gelditu. Orain 80 urte euskaldunen %20 errefuxiatu egin zen, halabeharrez. Ez dadila esperientzia mingarri hori ahaztu. Gernikan ikusiko dugu elkar.

**Erredakzioan itzulia*

## DURANGALDEA ASTEON

### Euskal xakelaririk onenak Zornotzan dira

**ZORNOTZA >** Euskadiko Xake Txapelketako 32. edizioa jokatzen dabiltza, domekara bitartean, Zelaieta zentroan. Partaideen artean Gabriel del Río, Mikel Huerga eta Sergio Trigo daude, besteak beste. David Diez zornotzarra, Alain Prieto durangarra eta Iñigo Aspe elorriarra ere parte hartzen dabiltza.

### Errefuxiatuei buruzko hitzaldia martitzenean

**ZORNOTZA >** Zornotzako Ongi Etorri Errefuxiatuak taldeak errefuxiatuen egoera zelakoa izaten den ezagutzeko aukera eskainiko du datorren martitzenean, 19:00etan, Zelaietako auditorioan antolatu duten hitzaldian. Errefuxiatuen laguntzarako Euskadiko batzordeko kideak izango dira hizlariak.

### Kamiñoko jatetxea garaile idi probetan

**ABADIÑO >** Abadiñoko probalekuaren 50. urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldian udalak 8.100 euro banatu zituen saritan markarik onenak egin zituzten buztarrien artean. Kamiñoko Jatetxeak egin zuen markarik onena. Laski izan zen bigarren sailkatua, eta Goieta hirugarrena.

## IRITZIA

astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:**
Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

**DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO**
Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoen eta emandako iritzien erantzukizunik.

### Energia berriztagarrien alorrean eta udalaren gardentasunean urratsak emateko beharra Abadiñon

Udal batek era gardenean, aukera berdintasuna bermatuz eta herriarentzat estrategikoak diren alorrak kontuan hartuz egin behar ditu kontratazioak eta gastuak. Horixe da Abadiñoko EH Bildutik defendatzen ari garena, udal gobernua aurkakoa egiten ari bada ere.

Legeak berak aurreikusten du, udalari suposatzen dion kostuaren arabera, kontratazioak zein esleipen prozesu motaren arabera egin behar diren. Hala ere, hainbat dira Abadiñoko Udalak arau horiek bete gabe kontratatuak dituen zerbitzuak. Horien artean kostu ekonomikorik handiena duena, energia elektrikoaren kontratazioa.

Udalaren gardentasunean bezala, eredu energetikoaren gainean ere hausnarketa eta aldaketa sakona egitea ezinbestekotzat jotzen dugu. Neguko egunik hotzenetan argindarraren prezioa lotsarik gabe igotzeari eta jatorri ez berriztagarria duten enpresak kontratatzeari utzi, eta %100 berriztagarriak diren iturrietara igaro.

Udalaren jarduteko modu hau aldatzeko helburuarekin, mozio bat sartu dugu apirilaren 25eko Osoko Bilkuran bozkatzeko. Hauek izango dira gakoak:

1.

• Legeak adierazitako minimoez gain, udalak jasotzen dituen zerbitzuak eta gastuak herriko gremio eta enpresei aukera berdintasuna bermatuz, eta era gardenean kudeatzeko ordenantza bat lantzea.

• Hornidura elektrikorako pleguetan, jatorria %100 berriztagarria izatea derrigortzea, eta beste energia eredu jasangarriagoa eta etikoagoa duten enpresek eskaini ahal dutenari balio gehigarria ematea.

Mikel Urrutia, Aitor Azueta, Irakusne Gorospe, Meritxel Etxagibel eta Iker Azkorbebeitia, Abadiñoko EH Bilduren izenean.

**Berbaz**

**Inma Unzueta Ajuria** | Aupatuz elkarteko kidea eta irakaslea | Durango, 1964

# “Muturreko kasuak kolektiborako adibide lez erabiltzen dira; irreala da eta kalte egiten du”

Adimen handiko seme-alabak dituzten familek osatzen duten Aupatuz elkarteko kidea da Inma Unzueta durangarra

> BERBAZ Aitziber Basauri

**EAEko biztanleriaren %0,1 inguru dira identifikatuta dauden adimen gaitasun handiko pertsonak. Portzentaje oso baxua da Inma Unzueta Aupatuz elkarteko kidearen esanetan. Hezkuntza sistema ez unibertsitarioan 6.800-17.000 ikasle dira adimen handikoak, baina “400era ez dira helduko antzemandakoak”. Hedatu diren mitoak asko direla dio.**



Argazkilaria: Lehior Elorriaga

**Adimen handiko umeen %98 ez daude identifikatuta, eta ez dute behar duten arreta jasotzen. Nola eragiten die honek?**
Egoera sozioekonomikoa, familia, eskola, bere inguruan ulertua eta onartua den ala ez... baldintza askoren menpe dago umearen garapena. Ikerketek diotenez, adimen handiko umeen heren batek eskola-porrota izaten du, eta beste horrenbestek gai direna baino erredimendu baxuagoa dute. Hori ere eskola-porrota kontsideratzen da, gai dira-eta gehiago emateko. Erdibidean geratzen dira. Erantzun egokirik jaso ez dutelako gertatzen da hori.

**Garrantzitsua da ahalik eta goizen detektatzea?**
Jakina. Eskola-porrotaz gain bestelako arazoak ere ekidin daitezke. Gerta liteke beste ikasleek ez onartzea, eta jazarpena ere sufritzea. Arraroak sentitzen dira, desberdinak direla ohartzen dira, baina ez dakite zergatik. Inozoak direla, gaixotasun edo atzerapenen bat dutela uste dute, eta guztiz kontrakoa da! Antsietatea edo depresioak izaten dituzte. Ume horien benetako profilak detektatuz gero, hau guztia ekidin daiteke.

**Nola antzeman daitezke?**
Arazo bat dago hemen. Izan ere, hori kamuflatzeko joera dute, neskek batez ere. Familia askok diote, etxean, konfiantzazko gunean, uneoro galdezka ari direla, galdera bitxiak egiten dituztela. Baina eskolan isilik egoten dira. Ez dute jakingura hori erakusten. Arraroak direla edo irakaslea haserretu dela ohartu, eta atzera egiten dute, ezkutatu egiten dira, jakin gura hori asetu gabe gelditu. Ezohiko bizkortasuna dute pentsamenduan, behin esanda ulertu eta barneratzen dute ideia, eta gelan gainerakoen erritmoari jarraitu behar badiote, gerta daiteke aspertzea, edo deskonektatzea. Pentsa daiteke ez dutela arreta jarri, eta ez da horrela.

> “Gerta liteke beste ikasleek ez onartzea, eta jazarpena ere sufritzea”

**Zer egin behar dute gurasoek?**
Susmoa hartuz gero, tutorearengana jo behar dute. Horrek orientatzaileagaz edo aholkulariagaz egon beharko luke, harek irakasleekin eta Berritzeguneko arduradunekin hitz egin dezan. Susmoa benetakoa den jakiteko, proba batzuk egingo ditu umeak. Horrela izan beharko luke, baina ez da gertatzen. Hainbeste bitarteko egonda, eta gaiarekiko ezagutza hain eskasa izanik, itzelezko kalbarioa pasatzen dute gurasoek kasu askotan detekzioa egiteko. Gai oso ezezaguna da. Einstein txiki bat izan behar dutela uste dute askok, eta ez da horrela.

**Hainbat mito hedatu dira?**
Piloa. Gutxi gorabehera, biztanleriaren %10 da adimen handikoa, eta aurkitu gura den ‘Pitagoras txiki’ hori populazioaren %0,001. Muturreko kasuak kolektibo osorako adibide lez erabiltzen dira. Irreala da eta kalte egiten du: oso autonomoak direla, dena berez dakitela edo emaitza oso onak izan behar dituztela ematen du, eta presiopean sentitu daitezke. Antsietatea sor daiteke, blokeo egoera bat.

> “Gai ezezaguna da. Einstein txiki bat izan behar dutela uste dute askok, eta ez da horrela”

**Kolektibo oso zabala da?**
Goiztiarrak direnak daude. Adin bereko beste umeak baino bizkorrago ikasten dituzte hainbat gauza. Horiez gain, talentu sinpleak —arlo batean bereziki onak direnak— eta talentu konplexuak —bi edo hiru arlotan bereziki onak direnak, gainerakoetan batez bestekoaren parean egon arren— daude. Talentu apartekoak ez dira bikainekoak arlo batean, baina arlo guztietan dira onak eta gaitasuna dute arlo desberdinak erlazionatzeko; ideia berriak sortzeko erraztasuna dute. Gero, muturrekoak leudeke. Jenioak. Einstein edo Mozart, besteak beste.

**Gai ezezaguna da?**
Bai. Duela hamar urte gai honetaz ezer ez nekienean ez nuen inolaz ere pentsatuko, adibidez, sentikortasun berezia izateak edota justiziaren edo etikaren zentzumena oso garatuak izateak gai honegaz lotura izango zuenik. Honek ez du esan gura oso sentibera diren ume guztiak adimen handikoak direla, baina bai adimen handiko asko oso sentiberak direla. Susmatzen hasteko indizio bat izan daiteke. Ezjakintasuna oso zabala da

**Ze arreta behar dute ikasleok? Hezkuntza arloan, zeintzuk neurri hartu beharko lirateke?**
Oso bizkor ikasten dutenez, batzuetan bizkorrago joan daitezke, eta ikasturtea aurreratu dezakete. Baina bakoitzaren profil edo egoera ikusi behar da, horren arabera curriculuma egokitzeko. Dena den, irakasle, orientatzaile eta hezitzaileen formazioa ezinbestekoa da antzemateko eta nola erantzun jakiteko. Beharrezkoa da horien emaitza akademikoak hobetzeko. Lehen pausoa da.

**Nola bizi dute euren izaera?**
Ume edo heldu, euren izaeraz ohartzean lasaitua hartzen dute, bizipen pertsonaleko hainbat pasarte ulertuz. Puzzle batean lez, pieza denek bat egiten dute.

**Zein da elkartearen helburua?**
Familien beharrak asetu gura ditugu, laguntza eskainiz eta Hezkuntza Sailagaz bitarteko lana eginez. Tailerrak egiten dira, baina ume hauei hezkuntza sistemaren barruan erantzun bat ematea da helburua.

Paddy Rekalde eta 'Itsua' | 'Izotza eta sua' diskoa kaleratu dute |

# "Arlo desberdinak dira gureak, baina mundu berekoak"

## Rekalderen poemak eta Itsuak jarritako doinuak izango dira entzungai, domekan, Plateruenean

**> MUSIKA** Itsaso Esteban

**Noiz eta zelan sortutakoa da proiektu hau? Noiztik ezagutzen duzue elkar?**

**Paddy Rekalde:** Lehenagotik ezagutzen genuen elkar, auzotik, bikotekideengatik... eta lan berriak elkarri pasatu izan dizkiogu baita. Estimatzen dugu bestearen lana, bai musika mailan, bai literaturan. Arlo desberdinak dira gureak, baina "mundu" berekoak...

**Itsua:** Beti esan izan dugu elkarregaz zerbait egin behar genuela. Paddyren *Spray* poema liburua irakurri ondoren, musika sortzen nenbilela sortu zen inspirazioa behin. Paddyri ideia bota nion, eta lehenengo kanta martxan zegoen!

**Plateruenean arituko zarete apirilaren 23an, 13:00etan. Zelakoa izango da emanaldia? Zer prestatu duzue?**

**P.R.:** Zuzeneko batzuk egin ditugu dagoeneko, eta horien antzekoa izango da: poemak dub, drum&bass eta elektronika musikagaz nahastuko ditugu. Horretaz aparte, Oier Floresek irudi eder bat sortuko du irakurketaren inguruan.

**I.:** Duela pare bat urte Jukebox EkaHitza ekimena ipini genuen hirurok martxan, performance moduko saioa antolatzen dugu, gidoirik barik. Bakoitzak momentuan sentitzen duenaren arabera joaten dira saioak. Musika, hitza eta margogintza batzen dituen esperientzia irekia da emanaldikoa.

**Zelan sortu dituzue kantak? Bakoitzak bakarka landu duzue zuen arloa, eta gero kideagaz partekatu?**

**P.R.:** Musika arloaz *Itsua* arduratu da bereziki, baina, jakina, bion gustukoa izaten saiatuta.

**I:** Testuak oinarri hartuta joan naiz musikak lantzen. Batzuetan Paddyk proposatutako testuak izan dira, eta neuk gustuko ditudalako hautatu ditut beste hainbat. Baina estudioan batu izan gara, funtzionatzen zuten ala ez ikusteko.

**Zelakoa izan da letrak lantzeko lana, Paddy?**

**P.R.:** Letrak Susa argitaletxeagaz kaleratu nuen *Spray* poema liburukoak dira, batez ere. Hortik aukeratu ditut musika mota horregaz ondo doazen letrak.

**Eta musikak sortzekoa, 'Itsua'?**

**I:** Normalean, musika aurretik lantzen dut, eta abeslariek letrak sortzen dituzte ondoren, baina oraingoan alderantziz jardun gara: letrak eginda zeuden, eta irakurtzerakoan sentitzen nuenaren arabera joan naiz musika sortzen. Lan egiteko beste modu bat izan da, eta baliteke horrek ere bultzatu izana niretzat ohikoena den hip hop arlotik kanpoko doinuak erabiltzera. Oso esperientzia aberasgarria izan da niretzat.



Paddy Rekalderen poemak oinarri hartuta sortu ditu 'Itsua'-k diskorako doinuak.

> *"Musika, hitza eta margogintza batzen dituen esperientzia irekia da emanaldikoa"*

**Gustura zaudete baten berbak eta bestearen doinuak batuta lortu duzuen emaitzagaz?**

**P.R.:** Nahasketa indartsua dela esango nuke, batek elikatzen duela bestea.

**I:** Sorkuntzari ez diogu ezelako mugarik jarri, eta uste dut horrek lagundu digula gura genuen soinua lortzen.

**Beat Salad ekoiztetxearen bitartez, biniloan kaleratu duzue lana. Zergatik hautu hori?**

**I:** 2009an martxan jarri nuen Beat Salad zigilu independenteagaz kaleratu dugu. Horrela, lan guztiaren kontrola daukagu prozesu osoan. 100 kopia baino ez ditugu aterako, 7" biniloan. Beat Salad Records-ek biniloan kaleratzen duen lehen lana izango da, gainera. Ni DJa naiz, eta biniloaren formatua erabiltzen dut nire saioetan. Gaur egun merkatua dagoen moduan KD-ak saltzea oso zaila da, eta jendeak musika modu digitalean entzuten du batez ere... Horregatik, kopia digitala ere kaleratuko dugu: biniloagaz batera, kopia digitala doan deskargatzeko aukera eskainiko diegu diskoa eskuratzen dutenei. Publiko berezi batentzat pentsaturiko produktu berezia da.

**Zenbat kanta biltzen ditu 'Izotza eta sua' diskoak?**

**P.R.:** Lau dira: *Fallen Angels*, *Izotza eta Sua*, *Pantera Emea* eta *Spray*.

**Non eta nola eskuratu dezake jendeak?**

**I:** Beat Salad Records zigiluaren webgunetik (www.beatsaladrecords.com) erosi ahal izango da, eta baita Durangoko Hitz liburu-dendan, Iruñeko Katakrak-en eta Euskal Herriko beste hainbat hiriburutan ere.

> *"Publiko berezi batentzat pentsatutako produktu berezia da diskoa"*

**Euskal Herrian nahiko ezezaguna eta ezohikoa den 'slam' poesia arlokoa da egiten duzuena. Poesia kritiko baten errezitaldi musikatua dela esan genezake? Zelan azaldu zer poesia mota den?**

**P.R.:** Slam edota Dub poetry izeneko poesia motatakoa izan daiteke gurea, eta poesia kritikoa izan daiteke, edo hobeto errebeldea, matxinatua... eta hortik musika mota horren beharra. Ez da "barnera" begiratzen duen poesia, asko dauka aldarrikapenetik, salatzetik, baina beti giza puntu batetik, jakina, matxinadari deika ibiltzea, baina kaleotatik... Argia, gogorra baina atsegina da poesia mota hori, bala bat bezain zehatza. Tiro bat bihotzean, baten batek esan zuen bezala.




PADDY REKALDE & ITSUA

**IZOTZA ETA SUA**

2017

# Argazkilaritzari buruzko saiakera lehiaketa Begira Photoren eskutik

Argazkigintza garaikideari buruzko Durangoko jaialdiaren zazpigarren edizioaren barruan antolatu dute, lehenengoz, saiakera lehiaketa hori

> LEHIAKETA Itsaso Esteban

Urriaren 26tik azaroaren 18ra egingo dute Begira Photo jaialdiaren zazpigarren edizioa, Durangon, eta, lehenengoz, argazkilaritzari buruzko saiakeren lehiaketan parte hartzeko aukera eskainiko dute. Argazkigintzaren arloko sorkuntza eta ikerketa bultzatzeko helburuagaz antolatu dute saiakera lehiaketa hori. Argazkigintzari loturiko gaien inguruan prosaz eta estilo librean idatziriko gogoeten sorkuntza bultzatu gura dute ekimen horregaz.

Lehiaketa horretan parte hartu ahal izateko baldintza nagusiak egilea 18 urtetik gorakoa izatea eta lehiaketara bidaltzen duen testua argitaratu bakoa izatea dira. Lanak *info@begiraphoto.com* helbidera bidali behar dira maiatzaren 27a baino lehen, eta 800 euroko sari bakarra egongo da jokoan.



Mendia gaiaren inguruan burutuko dute zazpigarren Begira Photo jaialdia, urrian eta azaroan, Durangon.

### Erakusketa kolektiboa

Bestalde, iaz bezala, beraien argazkiak bidalita argazkigintza garaikideari buruzko Durangoko jaialdian parte hartzeko deia ere egin diete antolatzaileek argazkizaleei. Mendia izango da, aurten, Begira Photo jaialdia ardaztuko duen gaia, eta argazkizaleek gai horren inguruan bidaltzen dituzten lan guztietatik epaimahaiak hautatzen dituen hogeigaz erakusketa kolektibo bat atonduko dute. Zornotzako Zelaieta zentroan ipiniko dute erakusketa ikusgai.

Erakusketa kolektibo horretako hautaketa prozesuan parte hartzeko beraien lana bidaltzea gura duten argazkizaleek ekainaren 30era arteko epea dute beraien argazkia bidaltzeko —argazki bakarra aurkeztu ahalko du parte-hartzaile bakoitzak—.

Begira Photo jaialdiaren webgunean daude aipaturiko deialdi bien inguruko zehaztasun guztiak kontsultagai, eta baita, urrian eta azaroan Durangon izango diren argazkigintzari buruzko erakusketa, tailer eta berbaldiei buruzkoak ere.

# Ipuin kontalarien gaua da gaurkoa, Arriolan

Bi saio izango dira entzungai, 22:00etan hasita

> LITERATURA I. E.

22:00etan hasiko da, gaur, ipuin kontalarien emanaldia, Elorrioko Arriolan. Bi saio izango dira entzungai. Maite Arrese kontalariak eta Mau Ziemkiewicz biolinistak *Amodiozko ipuinak* eskainiko dituzte, batetik. Maitasun mota desberdinak islatzen dituzten lau ipuin kontatuko dituzte, hitza, doinu ezagunak eta musika inprobisatua baliatuz.

Dorleta Kortazar ere gonbidatu dute Elorrioko antzokiko gaurko ipuinen gauan parte hartzera. *Berba kateatuak* izenburuko saioa eskainiko du Kortazarrek Arriolan. Behinola berari gertatu zitzaion bezala, kontatuko dituen istorioen magiak entzuleak ere harrapatu ditzan jardungo da Kortazar. Kontalariaren berbetan, "isildu ditugun berbak, isilarazi dizkigutenak; lapurtu dizkigutenak, berreskuratu ditugunak; erosi ditugun berbak, oparitu dizkigutenak; bihotzean katramilatu zaizkigun berbak, ihesean joan direnak" kontatuko ditu gaurko emanaldian, Elorrion.

# Amurizaren eta Egurenen 'Bainera bete itsaso'

Berrizko Kultur Etxean ipiniko dute erakusketa

> ERAKUSKETA I. E.

Gaurtik maiatzaren 12ra arte, Berrizko Kultur Etxean izango da ikusgai Miren Amurizak idatzi eta Irati Egurenek ilustratutiko *Bainera bete itsaso* ipuinari buruzko erakusketa. Iazko Durangoko Azokan aurkeztu zuten Mara izeneko pertsonaia protagonista duen istorioa.

Erakusketa zabaltzeko, aurkezpena egingo dute, gaur, 20:00etan, Berrizko Kultur Etxean. Datozen asteetan, maiatzaren 12ra arte, ordutegi honetan egongo da erakusketa zabalik: barikuetan 18:30etik 20:30era, eta asteburuetan kultur jardueren ordutegian.

Gaurko aurkezpenean, ipuin ilustratuaren sormen prozesuari buruzko azalpenak emango dituzte egileek, eta *Bainera bete itsaso* liburuari lotuta prestaturiko ikus-entzunezko lana ere emango dute.

Maiatzera arte ikusgai izango den erakusketan, ipuinean agertzen diren ilustrazio originalak eta ikus-entzunezko lanerako prestatutako hainbat material bilduko dituzte.

## GEURE DURANGALDEA

ANTTON URIARTE SALTERAIN
Musikaria



### Gogo txarrak ere badauka onetik

Badira urte batzuk gaixorik edo gogo txarrak jota etxean atsedenean makalaldia noiz/nola pasatu geratu behar izan ez naizena. Egunotan egokitu zait, hala ere, egunerokotasunaz kontratua eten eta lasai hartu behar izatea.

Eta ez dakit adinean gora egin ahala hartzen den perspektibagatik edo, baina gogoaren txarra kenduta, nago gainontzekoan onetik asko dutela horrelako egunek. Eguneroko erritmoaz ezinbestean apurtu beharrak arnas bat ematen du, geldialdi bat ezartzen du, eta eguneroko jardunarekiko distantzia batetik begiratzeko parada. Ikusarazten digute egunok, adibidez, ze indar behar duen gaixotasun luze, gaitz edo kroniko bat kementsu eta irribarrez daramanak. Hotzikara gordinenak eragiten dizkigu gaixo eta ziega baten, (in?)justiziaren kondenari 6 hilabeteko bizi itxaropen kondenak gain hartzeak. Balio dute kontatzeko asko dugula ikasteko, 28 egunero pattalaldi bat igaro beharra duen bakoitzaz.

> Eguneroko erritmoaz ezinbestean apurtu beharrak arnas bat ematen du

Horrelako egunetan baloratzen dugu zer gauza ederra den ondo egotea, eta halako egunek erakusten digute hobe genukeela txarrik igaro beharrik gabe, berez daukagun horren balioa nabarmentzea. Eta osasunaz gain ere, heda genezakeela hau bestelako esparruetara. Teoria errazegia akaso, praktika gaitzegirako.






# JAIAK!

## ABADIÑO - SAN PRUDENTZIO

**2017ko APIRILA**









# SAN PRUDENTZIO JAIEN EGITARAUA

## Apirilak 27, Donien Atxa

**18:00** Koadrila guztien bilera Trañako zubian **Donien Atxa ekartzeko**.

**20:00 Donien Atxa** jasotzea. Giroa alaitzen, **Ustekabe fanfarrea**, **Iluntze taldearen dantza saioa, eta urteko lagun ospetsua saritzeko ekitaldia.**

## Apirilak 28, San Prudentzio
UMEEN EGUNA

**11:00-14:00 Umeendako jolastokia** Galizia plazan. Euria bada, frontoian.

**12:00 Meza** nagusia.

**16:00-18:00 Umeendako jolastokia** Galizia plazan. Euria bada, frontoian.

**16:30 Ginkana** Traña plazan. Euria bada, eskolako aterpean.

**18:00 Haur animazioa** Azoka plazan: Frozen. Euria bada, eskolako aterpean.

**20:30 Txupinazoa txosnen gunean** Abadiñoko Gure Esku Dago taldearen eskutik. Txosna batzordeak antolatua.

**20:45 Parrilada** Traña plazan. Jai batzordeak antolatua.

**23:00** Jaialdia Trañabarren etorbidean:
· **Década Prodigiosa**

## Apirilak 29, zapatua
MOZORRO EGUNA

**14:00 Herri bazkaria** Traña plazan. Jai batzordeak antolatua.

**17:00 Koadrilen arteko jokoak** Traña plazan. Txosna batzordeak antolatua.

**19:00 Mozorro kalejira** Ku-Klux fanfarreak alaituta Trañabarren kalean.

**21:00** Mozorro txapelketaren **sari banaketa,** Traña plazan.

**22:15 Su artifizialak**. Tren geltokiaren ondoan. Euria edo haizea bada, hurrengo zapatura atzeratuko da. Udalak antolatua.

**23:00** Jaialdia Traña plazan:
· Honat

## Apirilak 30, domeka
GAZTE EGUNA

**14:30 Txupinazoa eta herri bazkaria** Traña plazan. Traña-Matienako gazteek antolatua.

**17:00** Gazte Eguneko **jokoak** Traña plazan.

**17:30 Eskulanen tailerrak** merkatu plazan.

**18:30 Poney gainean ibiltzeko aukera** merkatu plazan. Berrizko Dukiena Zaldiketa Clubaren eskutik.

**18:30 Kalejira** Sakatu elektrotxarangarekin. Txosna batzordeak antolatua.

**23:00** Kontzertua Traña plazan:
· **Nevadah**

**24:00 Play back** lehiaketa Traña plazan.

**01:00** Kontzertua Traña plazan:
· **Enkore**
· **Batek Daki**

## Maiatzak 1, astelehena

**Goizean Geu Be taldeak txahal bat erreko du** Traña plazan. Euria bada, merkatu plazan.

**10:00** Txanbolin taldeko txistularien **kalejira**.

**10:00 Nekazari azoka** Traña plazan. Euria bada, merkatu plazan.

**11:00 Pilota tailerrak** frontoian. Atxarte pilota eskolak antolatua.

**12:00 Herri kirolak** Traña plazan. Euria bada, merkatu plazan.

**17:00 San Prudentzio pilota txapelketaren finala**. Atxarte pilota eskolak antolatua.

## Maiatzak 5, barikua

**16:45 Txiki merienda** Azoka plazan.

**17:30 Haur animazioa** Azoka plazan: Patrulla canina. Euria bada, frontoian.

**19:30** Jaengo **Fuensanta de Martos herriarekin senidetzea** Errota Kultur Etxean.

**19:00 Futbito txapelketaren finala** Traña-Matienako kiroldegian.

**23:00** Kontzertua Traña plazan
· **DJ Danny Meip**

## Maiatzak 6, zapatua

**Goizean**, **paella txapelketa** merkatu plazan.

**12:30** Iluntze taldearen **dantza ekitaldia**. Euria bada, frontoian.

**16:00 Ugasixo txapelketa** merkatu plazan.

**17:00 Mus txapelketa** merkatu plazan. Zalduerreka auzolan elkarteak antolatua.

**17:30 Tortilla txapelketa** merkatu plazan.

**18:00 Umeen txankleta txapelketa** merkatu plazan.

**20:30 Frontenis txapelketako finala**.

**22:30** Jaialdia Trañabarren etorbidean:
· **Onda Futura**

## Maiatzak 7, domeka

**Egun osoan kale animazioa** Traña plazan Abadiñoko Gure Esku Dago elkarteak antolatuta.

**12:00 Umeendako patinajea** Plaza Galizian. Euria bada, eskolako aterpean.

**12:30** Zubibitarte kalean, **pintxo dastaketa**: Kubako gastronomia. Zalduerreka auzolan elkarteak antolatuta. Euria bada, San Prudentzioko tuneletan.

**14:00 Jubilatuen bazkaria**. Udalaren Gizarte Ongizate Arloak antolatua.

**17:30 De Norte a Sur taldearen erakustaldia** eskolako aterpean.

**20:00 Donien Atxa kentzea**. Errota Kultur Etxean:

Kartel lehiaketara aurkeztutako lanekin erakusketa bat egingo da apirilaren 21etik maiatzaren 6ra bitartean.







# Aurrekontua %30 bajatu arren, San Prudentzio jaiak gogotsu ospatuko dituzte

Aurten ez da bertso saiorik egongo, eta kontzertuak ere gutxituko dira

**> JAIAK** Markel Onaindia

Astebete baino gutxiago falta da Traña-Matienako San Prudentzio jaiak hasteko. Datorren eguenean altxatuko dute Donien Atxa, 20:00etan, eta koadrilak 18:00etan geratuko dira hasiera hori prestatzeko. Hortik aurrera, maiatzaren 7ra bitarteko jai luze eta biziak ospatuko dituzte Abadiñoko auzoko bizilagunek. Aurten, jaietarako aurrekontua %30 bajatu du udalak, eta horrek eragina edukiko du ekitaldi batzuetan. Adibidez, ez da bertso saiorik egongo; orain arte bertsozaleen urteroko zita garrantzitsu bat izan da, aretoa betetzea lortu izan duena.

Jose Luis Navarro alkateak azaldu du udalak zergetatik diru sarrera gutxiago eduki duela aurten, eta, horregatik, gastua ere murriztu behar izan dutela hainbat ataletan. Jaiak dira atal horietako bat, "funtsezkoak ez direnak" bere esanetan, beste beharrizan batzuekin alderatuta. Iaz 50.000 euroko aurrekontua eduki zuten sanprudentzioetarako, eta aurten 35.000 eurokoa izango da. Murrizketen artean, jai batzordeak bertso saioa kentzea erabaki du, bozketa bidez. Kontzertuak ere gutxituko dira; plazan eta etorbidean ez dira aldi berean egongo.

**Datorren eguenean altxatuko dute Donien Atxa**

### Bertsoak beste egun batean

"Bertso taldetik ez zen inor etortzen jai batzordeko batzarretara ekintza antolatzeko, eta hori ikusita, kentzea baloratu genuen", esan du Inma Zapardiez jaietako zinegotziak. "Hala ere, bertso saioa jaietatik kanpo beste egun batean egitea pentsatu genuen, beste diru partida bat erabilita. Udatik bueltan edota Euskararen Egunean izan daiteke".

### Su artifizialak, bai

Iaz polemika egon zen su artifizialekin, batzordean ez antolatzea erabaki arren, udalak aurrera egitea erabaki zuelako. Jaiak pasatu eta gero inkesta bat egin zuten, eta Zapardiezen arabera, bazkari herrikoiak eta su artifizalak dira jendeak gehien estimatzen dituenak. "Horregatik mantendu ditugu su artifizialak egitarauan". Udalak hartu du bere gain gastu hori.

Suetarako dirua beste partida batetik atera arren, jai batzordeko guztiak ez daude ados formula horregaz, Alex Cuestak dioenez. "Gauza asko kendu egin behar izan dira. Guri aurrekontu bat ematen digute, baina gero, gauza batzuk bai ala bai egon behar dira, aurrekontuan edo beste partida batean sartuta. Ez dakigu zein den benetako aurrekontua", esan du Cuestak.



Hilaren 27an hasiko dira jaiak, koadrilekin.



Ustekabe txarangak alaituko du jaien hasiera, iaz lez.

# Jaengo Fuensanta de Martosegaz senidetuko da Abadiño jaietan

Jaengo herritik jende ugari etorri zen hona; tartean, Navarro alkatea ere bai



Traña-Matienako jaiak ezagutu ahalko dituzte Jaengo herritik datozenek.

**> JAIAK** M.O.

Abadiño eta Fuensanta de Martos (Andaluzia, Espainia) herriak senide izango dira maiatzaren 5etik aurrera. Izan ere, San Prudentzio jaien barruan, senidetzarako ekitaldi instituzionala egingo dute. Industrializazioaren eraginez, 60ko hamarkadatik aurrera Jaengo herritik jende ugari etorri zen Traña-Matienara, eta migrazio hori dago hitzarmenaren oinarrian. Jose Luis Navarro alkatea ere handik etorri zen familiagaz, urtebete zeukanean.

**Maiatzaren 5ean talde bat etorriko da senidetza egia bihurtzera**

Navarrok ilusioz hartu du senidetza. "Herriko bizilagun batzuek eskatu dute, eta, gainera, ni jaio nintzen herria da", kontatu du alkateak. "Bere sasoian jende ugari etorri zen handik, eta haien seme-alaba asko bizi dira hemen", azaldu du Navarrok.

Fuensanta de Martoseko udalak baietza eman zion eskaerari. Ondorioz, maiatzaren 5ean talde bat etorriko da senidetza egia bihurtzera. 19:30ean izango da ekitaldia, Errotan.



# Gure Esku Dago elkarteak jaurtiko du aurten txosnaguneko txupinazoa

## Maiatzaren 7an, jaietako azken egunean, herri galdeketa antolatuko dute Abadiñon



Iazko adierazpen eguneko irudia. Abadiñon zeharreko korrikaldiaren ostean Traña-Matienan egin zuten ekitaldia.

**> TXOSNAGUNEA** J.D.
Txosnak eta bere ingurua jaietako osagai inportantea dira. Urtero txupinazo bategaz hasten dituzte jaiak, txopo jasoeraren biharamunean, apirilaren 28an. Txosna Batzordeak urtero herriko elkarte edo eragile bati eskaintzen dio txupina pizteko aukera. Aurten Abadiñoko Gure Esku Dago elkarteko kideak izango dira txupinazoa jaurtitzeko arduradunak. Maiatzaren 7an, jaietako azken egunean, Abadiñon herri galdeketa sustatuko dutelako aukeratu dituzte, jai batzordeko kideek jakinarazi dutenez. Abadiñoko Gure Esku Dago elkarteko Ibon Lizundiak "esker oneko" daudela eta "ilusio handiz" hartuko duten arduraдela azaldu du.

Txupinazoaren aurretik pregoiak irakurriko dituzte. Txosna Batzordeak lehenengo, eta Gure Esku Dago elkarteak ondoren. "Herritarrak galdeketan parte hartzera animatzea izango da gure mezua. Abadiñar denen ospakizun bat izan dadila gura dugu", adierazi du Lizundiak. Galdeketa antolatzen dabiltzanen lana ere gogoratuko dute. "Galdeketaren antolakuntza herritar askoren arteko lankidetza eskatzen ari da. Ahalegin komun baten emaitza izango da, eta lan hori guztia ere gogoratu gura dugu".

### Plazan galdeketa gunea

Durango, Zornotza, Elorrio eta Zaldibarren moduan, Abadiñoko herri galdeketa ere maiatzaren 7ko domekan izango da. Gune bi jarriko dituzte: Traña-Matienako Traña plazan bata, eta Zelaietako Txanporta plazan bestea. Sanprudentzioetako azken eguna denez, eguna girotuko duen ekintza sorta prestatzen ere badabiltza.

**"Galdeketan parte hartzera animatu gura ditugu herritar denak"**

Abadiñon galdera bikoitza egitea erabaki zuten herri batzar ireki batean: '*Nahi al duzu euskal estatu burujabe baten herritarra izan?*' da lehenengo galdera. Bai aukeratu dutenek bigarren bat izango dute: *Nahi al zenuke euskal estatu hori independentea izatea?*

# Futbito torneoak maiatzaren 5ean erabakiko du irabazlea

## Talde irabazlearentzat ez ezik, jokalari onenentzat ere garaikurrak izango dira

**> KIROLA** Joseba Derteano
Kirol zaleentzat menu oparoa antolatu dute jaietan. Futbito torneoa izaten da urtero interesik gehien pizten duen ekitaldietako bat. Aurten 11 taldek eman dute izena. Kanporaketak jokatu dituzte eta bi talderik onenek maiatzaren 5eko barikuan, 19:00etan, jokatuko dute finala Traña-Matienako kiroldegian.

Aurten bosgarren aldia egingo du jai batzordetik antolatutako txapelketak. Hasieran, diru saria jasotzen zuten irabazleek, baina, aurten, hori kendu eta garaikurrak banatuko dituzte. "Azken batean, futbitoa erdigune dela, jai-giroa sortzea eta ondo pasatzea da helburua", azaldu du jai batzordeko Alex Cuestak aldaketa arrazoitzeko. Talde irabazleak ez ezik, jokalari eta atezain onenek zein txapelketako pitxitxiak ere garaikurrak jasoko dituzte.

**Jokalari eta atezain onenek ere garaikur bana jasoko dute**

### Pilota eta frontenisa

Pilota eta frontenis txapelketak dira jaietako kirol egitarauko gainerako osagai nagusiak. San Prudentzio pilota txapelketako finalak maiatzaren 1eko astelehenean jokatuko dituzte, 17:00etan. Egun bereko eguerdian herri kirol erakustaldiak ere izango dira herriko plazan. Euria bada, merkatu plazan antolatuko dute.

Azkenik, hurrengo zapatuan, maiatzaren 6an, frontenis txapelketako bi bikoterik onenek indarrak neurtuko dituzte, 20:30ean.



Aurten 11 taldek parte hartu dute futbito txapelketan.










# Auzoko gazteak batzea helburu duen III. Gazte Eguna ospatuko dute hilaren 30ean

Lehen aldiz txosna jarriko dute San Prudentzio jaietan Gazte Asanbladako gazteek



Alex Cuesta eta Ion Urien, Gazte Eguneko sustatzaileak.

**> GAZTE EGUNA** M. Zuazubiskar

Alex Cuestak eta Ion Urienek izandako burutazio bati esker, orain hiru urte I. Gazte Eguna antolatu zuten Traña-Matienako San Prudentzio jaietan. "Auzoan koadrila baikotza berera zebilen, gazteen arteko harremanak ez ziren oso estuak, eta hori aldatzen saiatu behar genuela pentsatu genuen", adierazi du Ion Urien sustatzaileetariko batek.

San Prudentzio jaiak hurbil zeudela ikusita, Traña-Matienako gazteak batuko zituen zerbait egitea otu, eta I. Gazte Eguna egin zuten 2015eko apirilean. "Hasierako edizio hura beldur apur bategaz antolatu genuen, baina herrian harrera oso ona izan zuen gure ideiak", gaineratu du Urienek. Gainera, auzoko gazteak batzea helburu zuen ekimena ezin hobeto irten zela baieztatu dute sustatzaileek. "Orduz geroztik, auzoko gazte guztiok ezagutzen dugu elkar, eta gure arteko harremanak estuagoak dira. Hori oso pozgarria da" , esan du Urienek.

Harrezkero, urtez urte handitzen doan Gazte Eguna antolatzen dabiltza, Gazte Asanbladako beste kide batzuekin batera, Cuesta eta Urien. "Lehenengo edizioaren ostean ezin ginela gelditu ikusi genuen, eta Gazte Egunagaz aurrera egin behar genuela erabaki genuen", adierazi du Alex Cuestak.

## Egitarau oparoa

Orain urte bi hasitako bideari jarraituz, Traña-Matienako Gazte Asanbladak Gazte Eguna antolatu du apirilaren 30erako. Eguerditik gauera arte etenik izango ez duen egitaraua 14:30ean hasiko da, txupinazoagaz eta gazteen bazkariagaz. "Iaz 220 gazte inguru batu ginen bazkarian, eta aurten ere beste horrenbeste batzea espero dugu, 250 txartel jarri ditugu-eta salgai", adierazi du Cuestak.

Bazkalostean, 17:00etan, hiru urte hauetan ohitura bilakatu diren jokoak egingo dituzte Traña plazan. 18:30ean, Sakatu elektrotxarangak girotuta, herriko tabernetatik poteoan ibiliko dira Traña-Matienako gazteak.

Bestalde, iaz bezala, aurten ere Playback lehiaketa antolatu dute Gazte Asanbladako kideek. Parte-hartzaileek abesti eta abeslari ezagunen imitazio edo antzezpen pertsonalak egingo dituzte, horretarako apropos jantzita. Gauerdian hasi eta 1:00 arte egingo dute, Traña plazako eszenatokian. Izen-ematea aurretik egin beharra dago, 685 762 888 telefono zenbakira deituta.

Playback-aren aurretik eta ostean, musika kontzertuak egongo dira. 23:00etatik gauerdira arte Durangaldeko *Nevadah* taldeak kontzertua eskainiko du. Lehiaketaren ostean, *Enkore* taldea arituko da, eta hau bukatutakoan *Batek daki* erromeria taldeak girotuko du gaua.

Auzoko gazteek aurten ere Gazte Egunari erantzun bikaina ematea espero dute Cuestak eta Urienek, eta urtetik urtera ekimena hobetzea espero dute.



Iaz 220 lagunetik gora batu ziren Gazte Egunean.

## Gazte Asanbladaren txosna

Orain urte bi sortutako Gazte Asanbladak urte barruan hainbat ekintza sortzea zuen helburu, eta horietako batzuk egin ez dituzten arren, tortilla txapelketa bi egin dituzte urte bi hauetan.

**Playback lehiaketa antolatu dute gazteek, bigarrenez**

**Nevadah, Enkore eta Batek daki taldeek joko dute apirilaren 30ean**

Hala ere, egitea gura izan dituzten ekintza batzuk zenbait arrazoirengatik egin barik gelditu direla ikusita, eta gauza batzuk egiteko dirua izatea ezinbestekoa dela jakinda, San Prudentzio jaietan, lehen aldiz, txosna jartzea erabaki dutela jakitera eman dute lokalak hustu eta kaleak betetzeko asmoz lanean dabiltzan gazteek. "Badakigu lan gehiago egin beharko dugula San Prudentzio jaietan, baina aukera ona da Gazte Asanbladarentzat dirua ateratzeko. Beraz, gogor ekin beharko diogu", dio Cuestak.

Aurtengo jaietan lan gehiago egin beharko duten arren, Gazte Asanblako kideak pozik daude herriko gazteen erantzunagaz. "Pentsatu baino lehen bete genituen txosnako txanda guztiak, eta alde horretatik oso pozik gaude Traña-Matienako gazteek izandako jarreragaz", adierazi du Alex Cuestak.

Aurrera begira, ekintza gehiago egiten jarraitzeko asmoa dutela adierazi dute sustatzaileek. Hala ere, horretarako, herriko gazteen konpromisoa ezinbestekoa izango dela adierazi dute. "Momentu honetan, gutxi batzuek antolatzen dugu guztia, eta horrela zaila da aurrera egitea", bukatu du Cuestak.

ESTANKO ALBERDI
Zubiarte, 7 MATIENA - ABADIÑO · Tel.: 946 814 033

Pinilla
Denda
HARATEGIA-URDAITEGIA
Tel.: 946 815 127 · Trañabarren, 29 · MATIENA - ABADIÑO

Gisasola Pentsuak
- EKOGARDEN -
Ortuko landareak urte guztian

- Pentsuak - Pentsu ekologikoak - Haziak - Etxeko animaliak - Txoriak -
- Loreak - Arrain tropikalak - Dortokak - Kaiolak -
- Indioilar, oilo eta oilaskoak -
- Nekazaritzarako burdindegi produktuak -
- Lorezaintzako produktuak -
Trañabarren, 27 Matiena-Abadiño
Tel.: 946 816 687

Talleres Serafín
S.Coop

Elorriagazar, 11
MATIENA-ABADIÑO
Tel.: 946 814 807

# Janari kubatar dastaketa eskainiko dute Zalduerreka elkartekoek, maiatzaren 7an

200 pintxoren salmentatik ateratako dirua Asafex elkarteari emango diote Zalduerreka elkartekoek

> **ELKARTEA** Itsaso Esteban

Azken urteotan egin duten bezala, modu aktiboan parte hartuko dute Zalduerreka Auzolan Elkarteko kideek San Prudentzio jaietan. Maitzaren 7an, 12:30ean, Kubako jakien dastaketa eskainiko diete herrikideei. Durangoko La Bodeguita Del Medio tabernakoek lagunduko diete 200 pintxo prestatzen, eta biltzen duten dirua Asafex elkarteari emango diote.

Motxoia herriko taberna zenean Zalduerreka elkartea eratu zuten urtean, 2013an, hasi ziren jaietan munduko zenbait txokotako jakiak prestatu eta herritarrei eskaintzen, eta Senegal, Ingalaterra eta Portugalgo jakiak dastatu izan dituzte herritarrek haien eskutik. Elkartekideen berbetan, abadiñarrek gogoz hartzen dute ekimena.

Kubako gastronomiaren dastaketa horretaz gain, mus txapelketa ere antolatuko du, aurten ere, Zalduerreka elkarteak. Maiatzaren 6an, 17:00etan, egingo dute, frontoian.



Humberto Gallastegi, Janire Granados eta Alberto Ortiz de Barrón, Zalduerreka elkarteko barran.

Bestalde, eta 2013an elkartea eratu zutenetik egin duten bezala, elkarteko kideak zein beraien inguruko lagunak Zalduerrekako barran lanean jardungo dira jaietako hainbat egunetan. Hasieratik gura izan dute auzoko jaietako klasikoa bizirik mantentzea: "Txosnak ixten dituztenean jendeari Motxoienera etortzeko aukera ematea".

**Mus txapelketa ere antolatuko dute, maiatzaren 6an, frontoian**

Duela lau urte Zalduerreka Auzolan elkartearen egoitza bilakatu zen arte, Herriko taberna eta ezker abertzalearen egoitza izan da Motxoia etxea.

Humberto Gallastegi, Janire Granados eta Alberto Ortiz de Barrón dira Zalduerreka elkartea osatzen duten 25 bazkideetako batzuk. Azpimarratu dutenez, 25 bazkide horien ingurukoek ere erabiltzen dute Zalduerreka elkartea, eta mugimendu handia egoten da jaietatik aparte ere: astean zehar hainbat lagun koadrila batzen da afaltzera, eta asteburuetan ere bazkari eta afari asko egiten dira bertako sukaldean. "Jende gaztea dago elkartean, eta horrek bizitasun handia ematen du", adierazi du Gallastegik.

**25 bazkidek osatzen dute Zalduerreka Auzolan elkartea**

Herriko askotariko ekintzetan parte hartu ohi dute Zalduerrekako elkartekideek urte osoan, beste elkarte batzuekin kolaboratuz, sarritan. Auzoko Iluntze dantza taldeak antolatzen duen dantzari egunean, adibidez, elkartean bazkaltzen dute hainbat umek, eta euskal presoen eskubideen aldeko ekintzetan ere laguntzen dute.

# Jaizale taldeko txistulariak Iurretako koruarekin arituko dira, domekan

Domeka honetan, 12:30ean, eskainiko dute jaietako ohiturazko kontzertua

> **MUSIKA** I. E.

Traña-Matienako San Prudentzio jaietako ohiturazko emanaldia eskainiko du Jaizale Durangaldeko Txistulariak taldeak, domeka honetan. Aurreko urteetan baino lehenago egingo dute aurtengo kontzertua, Donien Atxa ipini baino lau egun lehenago, hain zuzen ere. Elizan izango da kontzertua, apirilaren 23an, 12:30ean.

**Eleder Iturrieta jardungo da txistulari taldea zuzentzen**

**Zortzi obrako errepertorioa eskainiko dute emanaldian**

Jaizale taldeko txistulariek ezezik, Iurretako koruak eta Durangoko metalen taldeak ere parte hartuko dute etziko emanaldian. Eleder Iturrieta jardungo da txistulari taldea zuzentzen, eta Antton Mari Aldekoa-Otalora arduratuko da abesbatza zuzentzeaz.

Zortzi obrako errepertorioa eskainiko dute etziko emanaldi horretan. *Zortziko*, *Joxe Migelen batela*, *Azken dantza*, *Neska zaharrak*, *Galtzaundi*, *Jai-jai*, *Azken agurraren negarra* eta *Txanton Piperri* kantak eskainiko dizkiete bertaratzen direnei.



Iurretako abesbatza eta Durangoko metalen taldea gonbidatu dituzte kontzertuan parte hartzera.










De Norte a Sur taldeko dantzarien ikuskizuna.

# De Norte a Sur taldeak flamenko ukitua emango die aurtengo San Prudentzio jaiei

Urte askoan jaietan parte hartu barik egon eta gero, maiatzaren 7an ikuskizuna eskainiko dute

**> DANTZA** Jone Guenetxea

De Norte a Sur dantza taldeak ikuskizuna eskainiko du Matienako San Prudentzio jaietan, maiatzaren 7an, 17:30ean, eskolako aterpean. Alicia Gallardo antolatzaileak azaldu duenez, urteak dira jaietan ikuskizunik aurkezten ez dutela. Ohitura berreskuratuta, taldekideak ilusioz daudela aurreratu du.

Matienan eskainiko duten ikuskizuna taldean lantzen dituzten dantzen erakustaldia izango da. Fandangoak, sevillar dantzak, runbak... Jai-giroan eta kalean espektakulua eskaintzeko errezital sinplea izan behar dela gogoratu du Gallardok. Sei taldek parte hartuko duten emanaldian 30 bat dantzari arituko dira. Nobedade moduan, dantza sevillar bat euskal dantzen pausoekin uztartzen duen ikuskizuna taularatuko dute. Dantza berritzailea Bermeon estreinatu ostean, Matienara ekarriko dute.

### 18 urteko ibilbidea

De Norte a Sur taldea orain hamazortzi urte sortu zuten Matienan. Gaur egun, entseguak egiteko lokala Muntsaratz auzoan dute. Hala ere, taldekide abadiñarrez gainera, durangar askok parte hartzen dutela azaldu du Gallardok. Sei taldek dihardute lanean. Horiei, koadro flamenkoa eta koru rozieroa gehitu behar zaizkie. Beraz, gaur egun, 100 bat lagunek parte hartzen dute Abadiñoko taldean. Taldekide horiei azpiegituran laguntzen dieten boluntarioak gehitu behar zaizkie. Ateak zabalik dituzte ikastera joan gura duten guztientzat. Dantza flamenkoa gustuko dutenek hasiberrien taldean parte hartu dezakete.

Taldearen hurrengo erronka maiatzean Malagan eskainiko duten emanaldia izango da. Hala ere, De Norte a Surren jaialdirik kutunena Astolan ekaineko azken zapatuan antolatzen duten Rocío jaia da. Aurten jaialdiak 15. edizioa beteko du; beraz, taldearen agendan finkatuta dagoen hitzordua da. Dagoeneko hasi dira jaialdi hori buru-belarri prestatzen. Egun osoko jaialdian dantza egiteaz gainera, ez da jan-edanik faltako.

**Sei taldek parte hartuko dute Matienako ikuskizunean**

**Fandangoak, dantza sevillarrak eta runbak eskainiko dituzte**

### Andaluziaren Eguna

De Norte a Surreko koadro flamenkoak Bilboko Campos Eliseosen antolatzen den Andaluziaren Egunean parte hartu du azken urteotan. Joan zen otsailaren 28an ez zioten huts egin hitzorduari. Aretoa lepo bete zen dantzari abadiñarren ikuskizunaz gozatzeko.



Orain 18 urte sortu zen taldea.



Ekaineko azken zapatuan Rocíoa antolatuko dute Astolan.







# “Ez dugu inoiz pentsatu formula bat bilatzea, ateratzen zaiguna egiten dugu”

## Enkore rock talde bilbotarra da San Prudentzio jaietako talde izarra; sentitzen dutena sortuz lortu dute arrakasta

**> MUSIKA** Markel Onaindia

**Gazteak engantxatzea lortu duen taldeetako bat da Enkore. Bilboko gazte batzuek osatzen duten banda honek rocka doinu dantzagarriekin nahasten du, eta jai-girorako aukera eskaintzen dute, sentsazio baikorrak transmitituta. Jaietarako errezeta interesgarria, beraz. Enkorekoek bete egiten dituzte Euskal Herriko plazak, eta apirilaren 30ean Traña-Matienara datoz, asmo beragaz. Zelan lortu dute hainbeste gazte erakartzea nazioarteko musika komertzialak hainbesteko indarra duen sasoi hauetan? Urtzi Iza taldekidearen esanetan topa daiteke horren erantzuna.**



Enkore taldekoak apirilaren 30ean etorriko dira sanprudentzioetara.

**Zelako harrera izan ohi duzue Durangaldean? Zer espero duzue sanprudentzioetako kontzertuaz?**

Beti oso ondo egon gara zonalde horretan. Durangon lau aldiz jo dugula uste dut; jaietan, Ahotsenean eta 40 Minutu Rocken birritan. Traña-Matienan ere orain dela hiru bat urte egon ginen, eta oso ondo sentitu ginen. Jendeak ondo erantzun du beti. Oraingoa ere, Traña-Matienan, esperientzia ona izatea espero dugu taldekideok.

**‘E’ izeneko diskoa argitaratu zenuten 2015ean, eta biran zabiltzate oraindik. Zelan doa?**

Bira desberdina izan da guretzat. Hasieran ohiko ibilbidea egin genuen Euskal Herriko leku ugaritara joanda. Baina, gero, Ingalaterran egon ginen lau kontzertu ematen. Gure musikak beste leku batzuetan zelan funtzionatzen zuen probatu gura genuen, eta esperientzia oso polita izan zen. Bartzelonan ere ibili ginen gero.

**Deneriko abestiak dituzue, baina esango nuke rock dantzagarria dela zuena batez ere.**

Musika sortzerakoan, kantu bakoitza mundu bat da. Konfiantzazko lagunekin entzuten ditugu kantuak, zelako aurpegiak ipintzen dituzten ikusteko [barrez], batasunik ematen ote den. Ez dakit abesti guztiak alaiak diren, baina izan daiteke hori transmititzea. *Hegan*, adibidez, dantzagarria da, baina beste estilo bat dauka. Ahalik eta eragin edo iturri gehien sartzen ahalegintzen gara, beti ere gu garena mantenduta.

**“Traña-Matienan esperientzia ona izatea espero dugu taldekoek”**

**“Denontzat talde kutuna zen Berri Txarrak, erreferentziala”**

**Gazteek kanpoko musika komertziala eta homogeneoa entzuten dutela esaten da gaur egun. Baina zuek lortu duzue gazteria engantxatzea. Zelan asmatu?**

Ni gitarra irakaslea naiz, eta ikusten dut zaila dela jakiten nondik doazen euren gustuak. Gaur egun internetegaz sekulako erraztasuna dute denetariko musika entzuteko. Hala ere, guk ez dugu inoiz pentsatu formula bat bilatzea, ateratzen zaiguna egiten dugu. Guk ere denetarik entzuten dugu, baita komertziala ere.

**Euskaraz abesten duzue. Asko dira beste aukera bat egiten dutenak. Zuen kasuan, zerbait naturala da, ala erabakitakoa?**

Proiektuari ekin genionean, orain dela zortzi bat urte, beste talde batzuetan jotzen genuen denok. Xabik gaztelaniaz egiten zuen, Aitortxuk ere gaztelaniaz uste dut, eta nik ingelesez. Denontzat talde kutuna zen Berri Txarrak, erreferentziala, eta horrek eragin zigun. Bestalde, euskara gure hizkuntza da, eta Bilbon euskara ez da gura genukeen beste erabiltzen. Ez dakit hemendik urte batzuetara zer egingo dugun, baina momentuz hauxe da gure aukera.

**Letrei dagokienez, maitasuna edo harremanak topatu daitezke kantu askotan. Baina, ‘bihotza ukabilaren tamainako arma da’ diozue abesti batean.**

Musikak esangura apur bat orokorra izan behar duela uste dugu. Bakoitzak bereganatzeko moduko mezua izatea. Gauza zehatzak esateak balio dezake batzuetan, baina jendeagaz konektatzeko orokorra izan behar da. Zuk diozun kantu hori izan daiteke guk talde lez pentsatzen duguna; gure taldea bihotz hori da, eta baita ukabila ere. Bakoitzak bere poztasun eta tristurak dauzka.

**Zer asmo duzue datozen aste eta hileetarako? Kontzertu ugari duzue?**

Traña-Matienakoaz aparte, Arrankudiagan joko dugu, 29an; Urduñan maiatzaren 5ean, eta gero Las Carrerasen ere bai. Egia esan, uda nahiko indartsu etorriko da. Hatortxu Rock jaialdian parte hartzeko aukera ere edukiko dugu, eta itzela da guretzat. Asko gustatzen zaizkigu horrelako musika festibalak. Hatortxuren edizio hau historikoa izango da, musikari lez eta bertan egoteak esan gura duenagatik ere. Bestalde, maiatzean gauza berezi bat argitaratuko dugu: *Hegan* abestiaren moldaketa bat; ezin dut askoz gehiago aurreratu.

**Eta disko berririk argitaratzeko intentziorik ez?**

Batek daki. Zelako uda pasatzen dugun ikusiko dugu lehenik, eta ea ideia batzuk ateratzen diren. Dena dela, inoiz ez zaigu gustatu aurreikuspenak egitea; gurago izan dugu kantuak sortu ahala erabakitzea zer egin. Momentuz kontzertuetan buru-belarri sartuta gabiltza, eta gauza desberdinak probatzen ere bai. Horixe da orain gure ardura.




Anborotenlagunak
Anboroten lagunak
Lekuan lekuko lagunak
Egin zaitez Anboroten Lagun, eta atera etekina txartelari!
Babestu proiektua urtean 30 euroren truke
Honako denda eta zerbitzuek deskontuak aplikatuko dizkiete ANBOTO txartela duten erabiltzaileei:
A-METZ DEKORAZIOA · BETIXU JATETXEA · COLOR PLUS · EPOCA SUKALDEAK · EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
· GIMNASIO ZIRKIN · HITZ LIBURU-DENDA · HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA · ITAI ARROPA ETA OSAGARRI DENDA
· IURRETA KOPISTEGIA · KATXARRO JATETXEA · KIROL ERROTA GIMNASIOA · LANDAKO OPTIKA
· MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA · NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA · OPEN KLUB · PLATERUENA KAFE ANTZOKIA
· UNAMUNZAGA ETXEBARRIA · HORTZ-KLINIKA · UNDARRI BIKE · URRIKE LIBURU-DENDA · UR URDAIBAI



Artearen Ezaupidea zikloaren barruko azken berbaldia eskainiko du Josu Rekaldek.



Ismael Manterola irakasleak eskaini zuen Durangoko hitzaldi ziklo horretako lehenengo saioa. Durangoko Museoa

# Picassoren 'Gernika'-ren aura hartuko du berbagai Josu Rekalde artista eta irakasleak

## Durangoko Arte eta Historia Museoan eskainiko du Josu Rekaldek hitzaldia, apirilaren 26an, 19:00etan

> ARTEA Itsaso Esteban

Josu Rekalde artista eta unibertsitate irakasleak (Zornotza, 1959) eskainiko du Durangoko Artearen Ezaupidea zikloaren barruko azken hitzaldia. Apirilaren 26an izango da berbaldia, 19:00etan, Durangoko Museoan. Ziklo horren barruko beste bi saioetan bezala, Pablo Picassoren *Gernika* obra izango da berbagaia. Izan ere, *Gernika eta Guernicak* izenburua du XIV. Artearen Ezaupidea zikloak.

Hain justu ere, Rekalderen hitzaldia hartuko duen Museo horretako areto txikian daude martxo amaieratik Picassok *Gernika* osatu aurretik eta ostean egindako hainbat margolan.

Aurten 80 urte dira Malagako margolariak artelana margotu zuela, eta arteari buruzko Durangoko zikloa koadro horren inguruan osatu dute. Picassok *Gernika* margotu zueneko testuinguru historikoa azaldu zuen Ismael Manterola irakasleak lehenengo berbaldian, eta ikuspuntu estetikotik mintzatu zen Aitor Aurrekoetxea irakaslea bigarren hitzaldian.

Josu Rekaldek datorren astean emango duen hitzaldiak *Guernica y los ladrones de auras* du izenburua, eta arlo artistikoan zentratuko da. Artistak azaldu duenez, Walter Benjamin filosofoaren kontzeptua da artelanen aurarena: "Teknologikoki erreproduzitzean artelanek beraien aura galtzen dutela zioen Benjaminek: obra orijinalak bakarrik daukala aura". XX. mendeko ikono bilakatu eta hainbeste erreproduzitutako obra izaki, ideia horregaz lotuko du Josu Rekaldek *Gernika*.

> 'Guernica y los ladrones de auras' izenburuko hitzaldia eskainiko du Josu Rekaldek, Durangon

Bestalde, gerrak dakarren sufrimendua salatzeko Picassok egindako artelanari pisu ideologikoa kentzeko, esparru askotan zabaldutako joeraz ere mintzatuko da Rekalde. "*Gernika* obraren interpretazio gero estetikoagoak egiten dira, eta horrek dakar gerraz gutxiago berba egitea", dio artista zornotzarrak. "Zenbat eta gehiago dihardugun estetikaz, gero eta gutxiago gabiltza memoriaz".

### Rekalderen erreprodukzioa

Picassoren *Gernika*rekiko interesa aspaldítik dauka Rekaldek. Gogora ekarri du, gaztetan Picassoren muralaren erreprodukzio bat egin zuela Zornotzako jaietan eszenatokian jartzeko, eta inguruko hainbat herritara eraman zutela gero. "Zerbait debekatua zen ia, baina etxe guztietan zegoen *Gernika*ren erreprodukzio bat".

Artea eta teknologia irakasten ditu Rekaldek EHUko Arte Ederren fakultatean, eta bideogintza, interaktibitatea eta instalazioak sortzen ditu.



'Grecia'. Bic boligrafoagaz eta goaucheagaz egindako margolana.

# Endika Basagurenen 'Helmugak' erakusketa, maiatzaren 1era arte

## Durangoko Museoko areto nagusian daude Basaguren berangotarraren lanak

> ARTEA I.E.

Siriako gerratik ihesean doazen errefuxiatuak eta itsasoa dira Endika Basaguren artistak (Bilbo, 1978) Durangoko Arte eta Historia Museoan ikusgai ipini duen *Helmugak* erakusketako protagonistak. Etorkizun hobea lortu guran dabiltzan pertsona guztiak hartu ditu lan honetan berbagai artista gazteak, eta bere margo, argazki eta bideoen bitartez kritika soziala eta politikoa egiten ditu.

Artistak berak kontatu duenez, itsas pintura jorratzen zebilen Siriako gerraren ondoriozko sarraskiaren berri eduki zuenean, eta errealitate latz hori ezin izan zuen alde batera utzi. Bere koadroetan islatu zuen gerratik ihesi zetozenen hilerri bihurturiko itsaso hori, eta *Helmugak* erakusketa osatu sorturiko lanekin. Itsasoko olatuen eta arrantzaleen irudi idilikorik ez dago erakusketan. Basagurenek azken bi urteetan burutu duen ibilbide artistikoaren isla da *Helmuga, Marinas 2.0* proiektuaren ondorioa.

> Gerratik ihesean doazen errefuxiatuak eta itsasoa dira 'Helmugak' bildumako protagonistak

> Bere margo, argazki eta bideoen bitartez kritika soziala eta politikoa egiten ditu Endika Basagurenek

Argazki eta bideo instalazioak, eta akuarelagaz eta boligrafoz egindako margolanak dira erakusketan bildutakoak. *Grecia*, *Azkenarnasartzea* edo *Europa criminal de guerra* izenekoak, adibidez.

Apirilaren 7an inauguratu zuten erakusketa, eta maiatzaren 1era arte Durangoko Museoko areto nagusian egongo da Endika Basagurenen *Helmugak*. Egun horretara arte ikusgai egongo den *Picasso: Durangotik Guernicara* erakusketaren aldameneko gelan.

Martitzenetik barikura 11:00etatik 13:30era eta 16:30etik 20:00etara, zapatuetan 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, eta domeketan 11:00etatik 14:00etara dago Durangoko Arte eta Historia Museoa bisitatzeko aukera.

Kirola

**Irene Loizate Sarrionandia** | Mugarra Triatloi Taldeko kidea | Durango, 1995

# “Soriako Europako Txapelketara nire mailarik onenean iristea gura dut”

Lehen aldiz Europako Txapelketa batzuetan arituko da Irene Loizate durangarra, irailaren 29an.






Maila absolutuan lehen garaipena eskuratu zuen Loizatek Gernikan.

> KIROLA Maialen Zuazubiskar

**Aurtengo denboraldian bi duatloitan hartu du parte. Gernikan irabazi eta Espainiako Txapelketan 23 urtez azpiko mailan laugarren postua eskuratuta, datorren asteburuan Europako Txapelketan izango da Irene Loizate durangarra.**

**Apirilaren 29an Sorian jokatuko den Europako Txapelketan egongo zara. Espero al zenuen bertan egotea?**
Espainiako Txapelketako lehen hiru sailkatuak Europako Txapelketara joango zirela bagenekien, eta baita hautatzaileak aukeratutako beste bi ere. Nik laugarren postuan bukatzea lortu nuen, eta selekzioko kideek jakitera eman digutenez, sailkapeneko lau onenok osatuko dugu taldea.

> *“Ez nuen espero Europako Txapelketa hauetan parte hartzea”*

> *“Gernikan eskuratu nuen nire lehen garaipena maila absolutuan”*

**Zer suposatzen du zuretzat Europako Txapelketa batzuetan parte hartzea?**
Niretzat izugarria da. Ez nuen uste Europako Txapelketa hauetan egongo nintzenik, eta oso pozik nago. Nazioartean duatletarik onenekin aritzea ikaragarria da.

**Izan duzu aukerarik Sorian jokatuko den distantzia olinpikoko lasterketako ibilbidea ikusteko?**
Ibilbidea internetez ikusteko aukera izan dut. Baina, Soriara noanean, ibilbidea aurretiaz ikustea gura nuke, batez ere, bizikletakoa. Korrikako lehen kilometroak nahiko lauak direla dirudi. Beraz, korrika, talderen batean egoten saiatuko naiz, ondoren bizikletan taldetxoren bategaz joan ahal izateko.

**Modu bereziren batean prestatzen ari zara txapelketa?**
Entrenamenduak gutxi gorabehera orain arteko berdinak dira, baina, oporretan nagoela aprobetxatuta, entrenamendu luzeagoak egiten nabil. Esaterako, aste hauetan goiz eta arratsaldez entrenatzen ari naiz, Soriako Europako Txapelketa hauetara nire mailarik onenean iristea gura dut-eta.

**Zein helburugaz zoaz?**
Egia esan, ez dut helbururik; parte hartzea da nire asmoa. Inoiz ez dut horrelako lasterketa luze batean parte hartu. Lehenbizi, 10 kilometro egin behar ditugu korrika, gero 40 kilometro bizikletan, eta bukatzeko, beste 5 kilometro korrika. Beraz, ikusi egin beharko da ea nola nagoen.

**Europako Txapelketako lasterketa aurten lehiatzen duzun hirugarrena ba, baina neguan kroseko lasterketetan ikusi zaitugu.**
Bai, nire helburu nagusia triatloiak dira, eta kroseko lasterketak eta duatloiak prestaketa legez erabiltzen ditut, triatloiei begira.

**Modalitate bi hauek triatloiak prestatzeko erabiltzen dituzun arren, kros lasterketetan eta duatloietan aurrean eta talde onetan ikusi zaitugu.**
Bai. Krosean, esaterako, aurten Espainiako talderik onenagaz parte hartzeko aukera izan dut, eta hori ikaragarria izan da. Izugarrizko zortea izan dut Bilbao Atletismo Santutxu taldeko partaide izateaz. Bestalde, duatloietan inoizko emaitzarik onenak eskuratzen nabil. Esaterako, Gernikan, joan den hilabetean, maila absolutuan nire lehen garaipena eskuratu ahal izan nuen.

**Bestalde, triatloien denboraldia ere hastear dago. Nola ikusten duzu zure burua?**
Gogotsu nago denboraldi berrirako. Orain, distantzia luzeko duatloien Europako Txapelketan parte hartu ostean atseden hartuko dut, ondoren ditudan helburuak ondo prestatzeko.

**Ze helburu dituzu?**
Helburu nagusi bi ditut denboraldi honetarako. Lehenengoa uztailean izango dut: Espainiako esprint distantziako Txapelketa. Bestea, berriz, irailean, Espainiako distantzia olinpikoko Txapelketa.

**Aurten ere Mugarra Triatloi Taldeagaz arituko zara. Nola ikusten duzu taldea?**
Taldeko kide guztiak oso ondo ikusten ditut. Egia da beraiekin lehen baino gutxiagotan egoten naizela, ni nire entrenamenduetan zentratuta bainago. Hala ere, taldekideak oso ondo dabiltza, eta horren adibide da Espainiako Txapelketan taldeko hiru kide egon ginela. Bestalde, niretzat triatloien munduan erreferente den Gurutze Frades ere hor daukagu, beti mailarik gorenean.

# Aurten ere igoera fasea jokatuko du Ametx Zornotza taldeak

Sailkapena poltsikoan dutela, bihar etxean amaituko dute liga erregularra



Bihar maila galduta duen Gandia taldea hartuko dute Larrean.

**> SASKIBALOIA** J. Derteano

Ametx Zornotzak Zilarrezko Ligako igoera fasea jokatuko du. Joan zen asteburuan lortu zuen sailkapena, eta ez da nobebadea. Orain urte bi final laurdenetara heldu zen, eta iaz Guadalajarak finalaren atarian kanporatu zuen, inoizko denboraldirik onenean. Aurten, denboraldiko une batean ematen zuen igoera fasetik kanpora geratuko zirela, baina azken txanpako susperraldiak beste amets bat bizitzeko eskubidea eman die.

Joan zen asteburuan latz sufritu zuten Ciudad Realen partidua aurrera ateratzeko. Luzapen baten ostean heldu zen Alcazar taldearen kontrako garaipena. Lehen zati berdinduaren ostean, hirugarrenean lortutako abantaila (50-58) alferrik galdu zuten akatsez betetako azken laurdenean. Galdutako baloiak zama astuna izan ziren. Ematen zuen gaztelarrak konfiantza gehiagoaz heldu zirela luzapenera, baina unerik gaitzenean aurpegirik onena erakutsi zuen Zornotzak, sendo defentsan eta zehatz erasoan. Iker Salazar izan zen partiduko MVPa, 26ko balorazioagaz (12 puntu, 13 errebote eta 3 asistentzia).

Horrela, argi-ilunekin zipriztindutako partiduan, Ametx Zornotzak bila zebilen helburua lortu zuen: igoera faserako sailkapena. Orain liga erregularra seigarren tokian amaitzen saiatuko dira. Zapatu honetako azken jardunaldian, maila galduta duen Hispagan UPB Gandiak bisitatuko du Larrea, 20:00etan hasiko den partiduan.

## ADITUAREN TXOKOA

**IÑAKI IZA ZARAZUA**
Pilotari ohia



### Urrutikoetxearen aukera

Hasi da dagoeneko urteko txapelketa nagusia, eskuz banakakoa, alegia. Aurtengoak bizkaitar bakarra izango du lehian, baina ez da nolanahikoa, txapela irabazteko aukera handia duen Mikel Urrutikoetxea baizik. Txapelketan estreinatzeko ez du izango aurkari makala Mikelek, Retegi Bi eta Ezkurdiaren arteko partiduaren irabazlea izango da. Retegik banakako txapelketetan ezin hobeto moldatzen dela garbi erakutsi du, besteak beste 2014an txapeldunorde gelditu zen. Ezkurdiaren eta Urrutiren artekoak, aldiz, badu hurbileko aurrekari gogoangarri bat, iazkoa hain zuzen ere. Josebak eskura izan zuen garaipena, baina Mikelek, latz sufritu ondoren, 22-19 irabaztea lortu zuen. Halere, nire ustez, bai bata eta bai bestea baino koska bat gorago dagoela erakutsi du zaratamarrak orain arte.

Gainera, aurtengo txapelketak baditu Mikelentzat mesedegarri izan daitezkeen ezaugarri batzuk: lehenengoa txapelketa prestatzeko inork baino denbora gehiago izan duela; bigarrena aurkari zuzenek ez dutela atsedenerako betarik izan, binakako txapelketan finalaurrekoak edo finala jokatu behar izan dituztelako; eta hirugarrena, eta nire ustez garrantzitsuena, Mikelek binakako txapelketan joko puntu ezin hobean dagoela erakutsi duela. Azken ezaugarri hau soilik kontuan izanez gero, txapelaren jabe izateko hautagai nagusienetariko bat dela ez dago esan beharrik; beraz, hirurei erreparatuta, nik neuk faboritotzat jotzen dut.

# Cafés Baqueren aurtengo taldea aurkeztu dute

23 urtez azpiko 16 txirrindularik osatzen dute

**> TXIRRINDULARITZA** J. D. / J.G.

Alex Garcia zuzendariak 16 txirrindulari izango ditu bere aginduetara Cafés Baqué BH taldean. Marino Lejarreta eta Ruben Gorospe txirrindulari ohien laguntza izango du. Taldearen hurrengo erronka Bidasoako itzulia da, eta nazioartean ere ibiliko dira.



Urtero legez Durangon egin zuten aurkezpen ekitaldia.

# Gaztetxoen futbol torneo bana Elorrion eta Berrizen

Bien artean 32 futbol talde batuko dituzte

**> FUTBOLA** J.D.

Elorrio eta Berriz futbol klubek gaztetxoen torneoak antolatu dituzte asteburu honetan. Txapelketa biak kontuan hartuta, Euskal Herriko 32 taldek duten harrobia bertatik bertara jarraitzeko aukera egongo da.

Elorriokoa kimu mailako torneoa da, eta hamasei talde parte-hartzaileek, lau taldetan banatuta, sailkapen fasea jokatuko dute bihar, egun osoan zehar. Final-laurdenetatik aurrerako partiduak domekan 10:00etatik aurrera hasiko dira. Sarrera hiru euro izango da. Eskualdeko taldeei dagokienez, Elorriok talde bi izango ditu lehian, eta Berrizek bat. Athletic Club, Eibar, Danok Bat eta Gernika dira txapelketan parte hartuko duten beste taldeetako batzuk.

Berrizko txapelketa Berrizburuko zelaian jokatuko dute. Zapatuko lehen faseak 12 talderik onenak bereiziko ditu. Domeka goizeko bigarren fasean erabakiko dituzte finalistak, eta finalak arratsaldean izango dira. Berriz izango da eskualdeko ordezkari bakarra, eta Etorkizun, Salesianos eta Gernika izango ditu multzokide lehenengo fasean.











**KAFE ANTZOKIA - MONTEVIDEO**

*Durangoko herrigunean*

*Energia eraginkortasun handiko etxebizitzak*

*Hiriko txaletak*

*Oiz mendira begiratokiak*

*Leku zabalak*

**Etorri ikustera!**

**ZARATE ELEXPE**
**ERAGILEAK**

www.zarateyelexpe.com
Tel.: 946 816 673

**Kontsultatu beste aukerak Iurretan, Elorrion eta Durangon**

# “Atletismoa betidanik gustatu zait, baina proba gutxitan parte hartu dut”

## Faustino Sanchezek eta bere taldekideek sortu zuten Iurretako Hiri Proba, 80ko hamarkada hasieran

**> KIROLA** J. Derteano

**Iurretako Hiri Proba Atletika Iurreta elkarteak sortu eta antolatu zuen lehenengo 25 aldietan. Faustino Sánchez (1944, Otero de Herreros, Segovia, Gaztela eta Leon) gaur egun desagertuta dagoen elkarteko presidentea izan zen. Domeka honetan, probaren egunean, bai bera eta bai elkarteko beste hainbat kide ere omendu egingo dituzte urte askoan egindako lanagatik.**



**1980an sortu zenuten Iurretako Hiri Proba. Zelan gogoratzen dituzu lehen aldi haiek?**
Iurretarentzat erakargarria zen zerbait antolatu gura genuen. Orduan, oraindik Durangoko parte zen. Lehenengo aldiak kadete mailara arte izan ziren, eta gero beteranoak gehitu genituen. Gerora etorri zen senior maila.

**Antolakuntza aldetik, erronka bat zen?**
Bai. Betidanik gustatu izan zait krosa, eta mundu horretako jendea ezagutzeko aukera eskaini dit. Behin Martin Fizegaz berba egin eta bere laguntza eskaini zigun. Bere lagun batzuekin batera proba lehiatzera etorri zen. Probak gerora lortu zuen ospearen hasiera izan zen. Munduko txapeldunak eta azpitxapeldunak etorri izan dira: Abel Anton…

**Orain korrika egitea modan dago, baina orduan ez zen hain kirol zabaldua izango.**
Ez ba! Hain zuzen, sasoi hartan Durangaldeko hainbat herritako ikastetxeak batu eta eskualdeko egutegi bat sortu genuen. Herri bakoitzak bere lasterketa zuen: Berriz, Zaldibar, Ermua, Abadiño… egutegi horretako onenak zuzenean sailkatzen ziren Bizkaiko txapelketara. Ia beste inon baino atleta gehiago eramaten genituen Bizkaikora.

**Makina bat kontu kurioso gertatuko zitzaizkizuen.**
Bai, horraitio! Eskolako lasterketa antolatzen genuenean, salda beroa ematen genien bertaratzen zirenei. Behin kide bat oilo bat ekartzetotan geratu zen, salda egiteko. Bagenekien gautxori samarra zena, baina… tira, horretan geratu ginen. Salda arratsaldean egiteko asmoa genuen, biharamun goizerako prest izateko. Heldu zen arratsaldea, baina bera agertu ez! Iurretako *Bodeguilla*ra jaitsi eta urdaiazpiko hezurrak eman zizkiguten. Ortutik porruak hartu eta salda egin genuen. Biharamunean, salda banatzen geundela etorri zen laguna. Oiloa bizirik zekarren kotxean.

**25 urtez proba antolatzen ibili ostean, nekea izan zen uzteko faktore nagusia?**
Bai. 60 urte egitera nindoan, jubilatu egin gura nuen eta ez nuen aurkitu erreleboa hartuko zuenik. Lasterketa antolatzeaz gain, gaztetxoak ere entrenatu nituen 16 urtez. Nekagarria zen eta utzi egin nuen.

**Uzteko erabakia hartzea gogorra egin zitzaizun?**
Pena eman zidan, baina akituta nengoen. Proba amaitzen zenean gaixotuta moduan eta indarrik barik egoten nintzen, estresaren ondorioz. Baina, oro har, pozak handiagoak izan dira: ezagutzen duzun jendea, lasterketa ondo irten izanak ematen duen poza… Horiek sentsazio itzelak dira. Orduan elkartean zeuden denei eskerrak eman gura dizkiet. Eurak barik ezinezkoa izango zen. Lan itzela egin zuten denek. Hor dago arrakastaren gakoa.

**Gaur egun, zelan jarraitzen duzu proba?**
Ikustea gustatzen zait. Iazko aldia oso ondo egon zen. Apur bat amorratzen nauena eta sarritan esan diedana da ez dezatela ibilbidea herritik kanpora atera. Ikusleek, gozatzeko, ikusi egin behar dute.

**Gaztetan lasterketa askotan parte hartu duzu?**
Gutxitan. Atletismoa betidanik gustatu izan zait, baina lasterketa gutxitan parte hartu dut. Batez ere neure kontura ibili naiz korrika. Umetan kilometroak eta kilometroak egiten nituen uztai-jolasagaz. Orain imajinatzea ere gaitza da zelan ibiltzen nintzen hara eta hona. Hortik datorkit afizioa. Krosak ikustea ere asko gustatzen zait.

**Zure ondorengoek afizioari eutsi diote?**
Bai. Iloba Ixonek gaztetxoen mailako proba irabazi zuen iaz, Iurretan. Bere ama Euskadiko txapelduna izan da, eta aitak 1.500 metrotan Espainiako txapelketara joateko markak egin ditu.

### AGENDA

**> FUTBOLA**

BIGARREN B MAILA (gizonak)

**Amorebieta - Sestao River**
· Zapatuan, 18:00etan, Urritxen.

HIRUGARREN MAILA (gizonak)

**Durangoko Kulturala - Lagun Onak**
· Zapatuan, 16:45ean, Tabiran.

EUSKAL LIGA (emakumeak)

**Elorrio - Oiartzun**
· Domekan, 15:30ean, Eleizalden.

OHOREZKO MAILA (gizona)

**Elorrio - Erandio**
· Zapatuan, 19:30ean, Eleizalden.

MAILA GORENA (gizonak)

**Zorrontzako - Solokoetxe**
· Zapatuan, 17:00etan, Larrean.

**Ezkurdi - Moraza**
· Zapatuan, 18:45ean, Tabiran.

**Amorebieta - Plentzia**
· Zapatuan, 16:00etan, Txolonen.

**> SASKIBALOIA**

ZILARREZKO LIGA (gizonak)

**Ametx Zornotza - Hispagan UPB Gandia**
· Zapatuan, 20:00etan, Larrean.

EUSKADIKO LEHEN MAILA (emakumeak)

**Tabirako Baqué - Ardoi**
· Domekan, 12:00etan, Landako kiroldegian.

**> ERRUGBIA**

EUSKAL LIGA (gizonak)

**Durango-Elorrio - Uribealdea**
· Zapatuan, 17:00etan, Elorrioko errugbi zelaian.

**> PILOTA**

BIHARKO IZARRAK TXAPELKETA

**- Zubizarreta - Otaduy / Alberdi - Olaizola**
**- A. Etxebarria - Aizpuru / Espinal - O. Etxebarria**
· Eguenean, 21:15ean, Mallabiko pilotalekuan.




EZKURDI OSASUN ZENTROA
DIABETESA DAUKATEN PERTSONENTZAKO ARRETA ETA LAGUNTZA ZERBITZUA
· Arreta indibiduala eta gertukoa.
· Itxaron zerrendarik gabea.
· Diabetesa duenari sorturiko gaitz akutu zein konplikazioetan laguntza zerbitzua.
Igotz Aranbarri.
Familia medikua eta diabetesean aditua.
Ezkurdi
osasun zentroa-centro médico
Askatasun Etorbidea, 23
DURANGO
Tel.: 946 81 81 81
PS.E.:40/17

# OSASUN GIDA

## FISIOTERAPIA

Zainduz

**FISIOTERAPIA OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

**Trañabarren 13, 4. blokea, behea eskuma**
**48220 MATIENA-ABADIÑO**
**Tel.: 944 657 132 - 686 906 374**

PSE: 119/13

**PABLO ZUBIZARRETA**

FISIOTERAPIA ETA OSTEOPATIA

**Muruetatorre, 2D - 48200 DURANGO**
**pzubizarreta@gmail.com**

**Tel.: 946 550 049**
**Mug.: 695 784 963**

PSE: 57/16

## PEDAGOGIA

UGATZ

**UMEAREN GARAPENERAKO ZENTROA**

*Laguntza goiztiarra, psikomotrizitatea, fisioterapia, logopedia*

**Juan Olazaran, 1 behea**
**48200 DURANGO**
ugatz@hotmail.es
**Tel.: 944 668 370 - 615 782 090**

PSE: 63/63

## PODOLOGIA

PODOLOGIA KLINIKA

**GOIATZ MURUA**
PODOLOGOA
**AINHOA ELORZA**
PODOLOGOA

*Kiropodia, onikopatia, alterazio dermatologikoak eta ibilerako alterazioak*
**Monagotorre, 4 - behea**
**48200 DURANGO**
**Tel.: 946 203 630**

PSE: 148/13

## ESTETIKA

AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticadurango.com

**Laser berria:**
*Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra*

*Obesitatea-zelulitisa,*
*Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...*
*Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...*

**Txatxiena, 6**
**48200 DURANGO**
**Tel.: 946 810 387**

PSE: 16/09

## OPTIKA

keinu optometria zentroa

Naia Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

- Optometrian teknika aintzindariak.
- Kontaktologia.
- Haurren ikusmena.
- Ikusmen terapia.
- Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia.
- SENA estimulazio neuroauditiboa.

Arkaraz 3
48240 Berriz
tel: 946225099

www.keinuoptometriazentroa.com

PSE: 162/13

## ODONTOLOGIA

clinicadental hortzklinika

**B. UNAMUNZAGA**
**E. ETXEBARRIA**
*ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALIZATUA*
**Muruetatorre, 2C - behea**
**48200 DURANGO**
*uecdental@gmail.com*
**Tel.: 946 819 951 Mug.: 717 194 454**

PSE: 145/13



**J.L. URRETA ZABALO**

*MEDIKU ESTOMATOLOGOA*
*IMQ, PADI (umeen hortz programa)*
*Ortodontzia*

**Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.**
**48200 DURANGO**
**Tel.: 946 812 200**

PSE: 112/13

## PSIKOLOGIA

**JON ARRUABARRENA**
PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA
- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK
**Frantzisko Ibarra, 6 - DURANGO**
**jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz**
**Tel.: 946 033 246 - 629 245 728**

PSE: 62/11

# Inmobiliariak

**AMBOTO INMOBILIARIA**
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO
Tel.: 946 813 562

## ETXEBITZAK ALOKAIRUAN

**DURANGO**. Bat, bi eta hiru logelako etxeak alokairuan. Hilean 550€-tik hasita.

## ETXEBIZITZAK SALGAI

**DURANGO**. Tabirakalea. 3 logelako etxea, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira. Eta garaje itxia.

**BERRIZ.** Etxebizitza guztiz berriztatua, 3 logela, 4 bainugela, sukaldea balkoiarekin, egongela balkoiarekin eta despentsa. Dotorea.

**DURANGO**. Francisco Ibarra. 4 logelako etxebizitza, 2 komun, sukaldea, egongela balkoiarekin eta despentsa.

**ATXONDO**. 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, hiru balkoi. Horrez gain, garaje itxia.

**ELORRIO**. 4 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea balkoiarekin, komuna, eta garajea itxita.

**DURANGO**.-Kalebarria, 3 logelako etxebizitza, sukaldea, egongela, eta komuna. 120.000€.

**DURANGO**. ARTEKALE. Azken etxebizitzak, bikoak, trastelekuarekin. Prezioak 165.000€ -tik hasita.

**LEKEITIO**. 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.

**ABADIÑO**. Iturritxo. Logela bateko apartamentua, sukalde amerikarra-egongelarekin, komuna, esekitokia, ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

**DURANGO**. ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun, sukalde amerikarra, egongela, garaje itxia eta terraza ikaragarria.

**ATXONDO**. Etxebizitza 2 logelarekin, komuna, despentsa, sukaldea esekitokiarekin, eta egongela.

**ZALDIBAR**. Etxebizitza, 3 logela, komuna, sukaldea, egongela balkoiarekin, guztiz berriztatua. Horrez gain, trastelekua.

## LURSAILAK SALGAI

**ABADIÑO**. 1.000 m2-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitzeko baimenarekin. Zonalde egokia.

**BERRIZ**. 10.000 m2-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.

**IURRETA**. 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.

**ABADIÑO**. Bifamiliarra eraikitzeko lursaila, 1.000 m2. Informazio pertsonalizatua.

**AMOREBIETA. EUBA**. Txalet bifamiliar bat eraikitzeko lursaila, 3.000 m2 inguruko azalerarekin.

## BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

**BERRIZ**. Txaleta 1.200 m2-ko partzelan, Abeletxe kalean. Hegoaldera begira. 4 logela, 3 komun, sukaldea, egongela, eta garajea.

**ATXONDO**. Baserri ikusgarria Martza auzoan, 15.000 m2-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.

**BERRIZ**. Bº Murgoitio. Bifamiliar ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 komun, garaje bikoitza, 12.000 m2-ko lursaila. Kokapen ezin hobea, Anbotora begira.

**MENDATA**. Lamikiz auzunea. Baserri bifamiliarra berriztatzeko. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.

**DURANGO**. Eraikin atxiki ederra, izkina, guztiz hornitua. Ia berria, estreinatzeko.

**BERRIZ**. Baserri ederra, Murgoitioko zonaldean. Egokia landa-turismorako, landetxea. Ikuspegi ezin hobeak.

**BERRIZ**. Eitua. Baserri ederra, fatxadan arkua duena. 5 hektareako lursaila. Bifamiliarra izateko aukera.

**ETXEBARRIA**. Iturreta. Baserri ikusgarria 5 hektarea baino gehiagoko lursailarekin partzela bakar batean eta baserria inguratzen.

**URRUTXUA**. Baserria 8 hektareako lursailarekin, komunikazio ona Gernika, Durango, eta Bizkaiko Balkoiarekin. Prezioa adosteko.

**ISD Inmobiliaria del Duranguesado**
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

## ETXEBIZITZAK SALGAI

### ERRETENTXU



• 93 m2 erabilgarri. 4 logela, egongela, sukaldea jarrita, bainugela bat eta balkoia. Berogailua gas naturalarekin, igogailua. Garajea aukeran. **210.000€ / E.E.Z.: E**

### KALEBARRIA



• 68 m2-ko etxebizitza. 3 logela, egongela, sukaldea jarrita eta bainugela. Leihoak aldatuta eta berogailuarekin. Ziurtagiri energetikoa jasotzeko zain. **125.000€.**

### BARRENKALE



• 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Bizitzera sartzeko moduan eta igogailuarekin. **120.300€ / E.E.Z.: G**

### SAN FAUSTO



• Etxebizitza egoera onean, bizitzera sartzeko moduan. 2 logela, egongela, sukaldea jarrita eta bainugela. **75.000€/ E.E.Z.: G**

### MATIENA



• 68,65 m2 eta balkoia. 3 logela, egongela, bainugela berriztatua eta sukaldea jarrita. Ganbara, berogailua eta igogailua. Teilatua eta fatxada berriztatua. **156.000€ / E.E.Z.: E**

### ABADIÑO



• Babes ofizialeko etxebizitza. 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, 2 bainugela, balkoia. Garajea eta trastelekua. Altzariz hornitua. **175.000€**

**www.inmoduranguesado.com**

**ETXETXO G. INMOBILIARIA**
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

## AUKERA

- IURRETA. B. Kapanaga. 3 logela. Egongela. Terraza. Berogailua. **87.000€**.
- DURANGO. 3 logela. Bainugela. **80.000€**.
- MAÑARIA. Etxebizitzak eta atikoak. Estreinatzeko. **125.000** eurotik hasita.
- IZURTZA. 2 logela. Bainugela. Egongela. Bizitzera sartzeko moduan. **80.000€**.
- MIKELDI. Erdi-berria. APARTAMENTUA. Erdi-berria. Erdialdean. Dena kanpora begira. Altua. Ganbararekin. **155.000€**.

## ETXEBIZITZAK SALGAI

- MATIENA. Erdi-berria. Altua. Apartamentua. Trastelekua eta garajea. **140.000€.**
- MARTXOAREN 8KO. 3 logela. 2 bainugela. Sukaldea. Esekitokia. 2 terraza. Ganbara. 2 garaje. **265.000€**.
- MONTEBIDEO. 80m2. 3 logela. Bainugela. Egongela. Sukaldea. Despentsa. Ganbara. **150.000€**.
- SAN ROKE: BERRIA. Pisu altua, 80 m2-koa. 2 logela. 2 bainugela. Sukaldea. Egongela zabala. Ganbara. Garajea aukeran. **242.000€**. (BEZa barne)
- ELORRIO. 67 m2. 2 logela. Bainugela. Eguzkitsua. Ikuspegi onekin. Bizitzera sartzeko moduan. **124.900€**.
- SAN IGNACIO. 116m2. 3 logela. 2 bainugela. Egongela. Ganbara. Dena kanpora begira. Eguzkitsua. **236.000€**.
- EZKURDI. Duplexa/Atikoa. 270m2. Dena berria. 2 garaje. Eguzkitsua.
- ZALDIBAR. BERRIAK. ESTREINATZEKO. 2 eta 3 logela, 2 bainugela. Sukaldea. Balkoia. Egongela. **153.000** eurotik hasita (BEZa barne)
- SAN AGUSTINALDE. 103 m2. DENA BERRIA. 3 logela. Bainugela. Egongela. Terraza. **260.000€**.
- IURRETA. 3 logela. Bainugela. Sukaldea. Egongela. Terraza. Berogailua. Igogailua. Berriztua. Eguzkitsua. **159.000€**.
- F.J. ZUMARRAGA. 110 m2. 4 logela. Sukaldea-despentsa. Egongela. Galeria. **155.000€**.
- J. M. ALTUNA. 100m2. 3 logela. 2 bainugela. Sukalde-esekitokia. Egongela terrazarekin. Ganbara. Garajea. **269.000€**.
- BIDEBARRIETA/ ASKONDO. 3 logela. 2 bainugela. Egongela eta terraza. Eguzkitsua. DENA BERRIA. **180.000€**.
- LANDAKO ETORBIDEA. 3 logela. 2 bainugela. Sukaldea. Egongela. Terraza. Ganbara eta garajea. **226.000€**.
- BASERRIA. Sarria. Familiabakarrekoa. 377 m2. Berriztatua. Lursailarekin. 8.000 m2.
- ZALDIBAR. Iturrioz. 3 logela. Bainugela. Egongela. 2 Terraza. Igogailua. **135.000€**.
- ZALDIBAR. Babes Ofizialeko Etxebizitza. Erdialdean. Erdi berria. 45 m2-ko terraza. 2 logela. Bainugela. Egongela. Garajea itxita. **148.312€**.

## LOKALAK SALGAI ETA ALOKAIRUAN

- K/ERMODO. ALOKAIRUA. **600€**.
- ABADIÑO. Ile-apaindegia. 50m2. ALOKAIRUA: 600€. SALMENTA: **75.000€**.
- ZALDIBAR. Salmenta. Ganbara zabala. Egokia bulegoa eta estudioa izateko. 24-35 m2. EKONOMIKOA.
- F.J. ZUMARRAGA. AUKERA. 114 m2. SALMENTA. **150.000€**.
- IBAIZABAL. 50 m2. Guztia jarrita. SALMENTA / ALOKAIRUA. **500€**.
- KOMENTUKALE. 50 m2. Guztia jarrita. **85.000€**.
- DURANGO. TABERNA martxan. 95 m2. **186.000€**.

**LOKALAK ETA ETXEBIZITZAK ALOKAIRUAN. KONTSULTATU.**
**www.inmoetxetxo.com**

**ALOKAIRUAN ETA SALGAI DITUZUN HIGIEZINEN BERRI EMAN NAHI AL DUZU?**

**Anbotok tarte hau eskaintzen dizu**

**Informazio gehiagorako:**
**Tel.: 946 217 902**
**publi@anboto.org**

# anboto.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK
2 TEKNOLOGIA
3 LANA/NEGOZIOAK
4 DENETARIK
5 IBILGAILUAK
6 HARREMANAK
7 AISIA/KIROLA
8 FAMILIA/ETXEA

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

## NORBANAKOEN IRAGARKIAK

**Interneten eta paperean, doan:** Partikularrentzat - Erregistratu www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio eta bertan anboto aukeratu) edo bidali mezua: anboto@anboto.org.

**Paperean, ordainduta:** Enpresentzat - Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

## Higiezinak

### ETXEBIZITZAK

#### SALDU

**Aramaio.** Baserri etxea. Aukera asko. 140m2 handitu daiteke. 3000m2-ko lur eremua. Eguzkitsua, Urkiolako Parke Naturalaren ikuspegi zoragarriak. Hiru hiriburuetatik hurbil. Tel.: 669-06 47 88.

**Berriz.** Etxe ederra herri barruan, kiroldegiaren eta eskolaren aurrean. Oso eguzkitsua da, eta bista zoragarriak ditu! Ia amaituta dago. Sukaldea, jangela, egongela, 5 logela, 3 bainugela, 2 kotxerentzako garajea, eta argitasun handia duen espazio handi bat, txoko edo lan egiteko gune gisa erabiltzeko modukoa. Aukera oso ona! Tel.: 651-34 80 08.

**Zornotza.** Etxebizitza salgai Euban. 3 logela, egongela 1, sukaldea, 2 bainugela, ganbara, balkoia eta gasoil berogailua. 345 m2-ko lursailarekin. Aukera paregabea! Tel.: 695 70 18 58.

#### ERRENTAN EMAN

**Berriz.** Berrizko Sarria auzoko baserri bateko beheko etxebizitza, alokagai. Lur saila barne. Harremanetarako Tel.: 635-74 19 68 eta 656-72 61 93.

**Zaldibar.** Bikote batentzat egokia, egoera oso onean. Logela bat, bainugela eta sukalde-egongela. Herriaren erdian (eskola eta udaletxe ondoan) bi kaletara bistak. Igogailua. Garajeetan 15m2-ko trasteleku bat. interesatuek deitu telefono honetara 664-10 27 91.

### LOKALAK

#### ERRENTAN EMAN

**Atxondo.** Atxondon lokala alokagai Artia industrialdean. Bi solairu ditu, eta solairu baikoitzak 180m2. Tel.: 657-79 42 92.

### GARAJE / TRASTEROAK

#### ERRENTAN EMAN

**Durango.** J.M. Altuna kalean, Ibaizabal inguruan garaje irekia alokatzen da. Garajean autoa erraz sartzeko eta plaza erraza kotxea aparkatzeko. Kontaktatu whatsapp bidez mesedez 679-18 52 22.

**Durango.** Durangon garaje-plaza alokatzen da, trasteleku eta guzti. Euskaltel denda ondoan. Tel.: 676-97 95 77.

## Lana - negozioak

### LAN ESKARIAK

#### OSTALARITZA

**Durangaldea.** Lan bila nabil eta Durangaldean zenbait lanetan aritzeko prest nago: dendako arreta zerbitzua, tabernan, haurren zaintzan... Pertsona langilea eta arduratsua naiz. Informazio gehiagorako deitu edo idatzi lasai 628-61 40 34 zenbakira.

#### PERTSONAK ZAINDU

**Durangaldea.** Neska arduratsua lan bila pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko. Tel.: 602-19 06 14.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen dituen neska arduratsua. Tel.: 631-60 28 83.

**Durangaldea.** Neska lan bila dabil, bezeroaren arretan jarduteko, sukaldari laguntzaile, garbitzaile edo pertsona nagusien zaintzan. Lan esperientzia arlo ezberdinetan. Gida baimena badaukat. Astegunetan edo orduka lan egiteko prest. Tel.: 617-13 62 22 (Nora).

**Durangaldea.** Lan bila nabil pintore, igeltsero edo obrako lanetan. Esperientziaduna. Tel.: 617-13 62 22 (Mohamed).

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zaintzeko prest. Barneko edo kanpoko langile modura zein orduka. Tel.: 632-20 42 45.

**Durangaldea.** Neska euskalduna, ikasketaduna eta esperientziaduna, umeak zaintzeko zein etxeko lanak egiteko prest dago. Tel.: 662-36 41 67 / 946-81 39 40.

**Durangaldea.** Astelehenetik barikura edo orduka, pertsona nagusiak zaintzeko zein garbiketa lanak egiteko prest. Tel.: 669-66 77 90.

**Durangaldea.** Lan bila nabil garbiketan (atariak, etxeak, jatetxeak) edo pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Lanaldi osoan edo kanpoko langile moduan aritzeko prest. Tel.: 632-64 19 37.

**Durangaldea.** Pertsona arduratsua eta esperientziarekin lan bila nagusiak edo umeak zaintzen edo etxeak garbitzen. Kanpoko langilea zein orduka. Tel.: 631-69 80 95.

**Durangaldea.** Esperientziadun neska barneko langile moduan pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tel.: 632-23 07 84.

**Durangaldea.** Barneko langile moduan lan egiteko prest nago. Erreferentziekin. Tel.: 631-36 95 87.

**Durangaldea.** Neska gaztea haurrak zein nagusiak zaintzeko prest dago. Bost urteko esperientzia, batean zein bestean. Ingeles maila altua. Tel.: 632-39 74 84.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Tabernak, atariak eta etxeak garbitzeko ere prest nago. Horrez gain, sukaldean laguntzaile moduan aritzen naiz. Kanpoko zein barneko langilea, gauez lan egiteko prest. Erreferentziak ditut, eta esperientzia baita ere. Tel.: 602-80 83 85.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zaintzeko lana bilatzen nabil. Tabernak, atariak eta etxeak garbitzeko ere prest nago. Lisatzen ere aritzen naiz. Erreferentziak ditut. Orduka lan egiteko prest, nahiago goizez. Tel.: 631-67 39 39.

**Durangaldea.** Lan bila nabil, pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Garbiketan ere aritzen naiz. Esperientzia dut. Astegunetan eta asteburuetan, baita orduka ere. Tel.: 631-12 01 43.

**Durangaldea.** Lan bila nabil asteburuetan eta gauez. Tel.: 632-03 27 98.

**Durangaldea.** Lan bila nabil kanpoko langile moduan edo orduka. Tel.: 632-95 90 93.

**Durangaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen, orduka, goizez zein arratsaldez. Tel.: 632-61 98 47.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Kanpoko zein barneko langilea. Tel.: 689-27 36 61.

**Durangaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zein umeak zaintzen, garbiketan, etxeko lanak egiten... Esperientziadun kanpoko langilea. Tel.: 622-41 75 28.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zaintzen ditut eta garbiketan ere aritzen naiz. Orduka, lanaldi osoan, lanaldi erdian edo gauez lan egiteko prest. Tel.: 632-24 93 18.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Horrez gain, garbiketan ere aritzen naiz. Tel.: 663-51 37 21.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Horrez gain, garbiketan ere aritzen naiz. Tel.: 600-88 05 87.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zaintzen ditut (gizonezkoak). Horrez gain, garbiketan ere aritzen naiz. Tel.: 634-26 55 31.

#### IRAKASKUNTZA

**Durangaldea.** Neska euskalduna, administrazio ikasketak eta esperientzia duena. Lehen Hezkuntzan eta DBHn partikularrak banaka zein talde txikietan emateko prest. Tel.: 662-36 41 67 / 946-81 39 40.

**Durangaldea.** Neska euskalduna, biologian graduatua eta EGAduna. Umeei klase parrtikularrak emateko prest. Tel.: 695-71 94 32.

#### GAINERAKOAK

**Durangaldea.** Mota guztietako margolari lanak egiten ditut etxebizitza, lonja eta garajeetan: bernizadura, horma eta sabai berdintzeak, gotelea kentzeko lanak eta papereztatzea. Eskatu iezadazu aurrekontua inongo konpromiso barik. Tel.: 631-17 39 55.

### LAN ESKAINTZAK

#### GAINERAKOAK

**Durangaldea.** Durangaldeko hagin klinika batean, odontologiako auxiliarra bilatzen da, lanaldi erdirako (higienista titulua edukitzea baloratuko da). Bidali curriculum-ak mari-zama@hotmail.com helbidera.

## Denetarik

### SALDU / EROSI

**Ardiak.** 3 urteko ahari latxa, ardi latxa eta bildotsak salgai. Deitu konpromisorik gabe. Tel.: 94-621 82 57.

**Ardiak salgai.** Ardiak salgai. Tel.: 630 28 74 58.

**Astoak salgai.** 4 urteko asto arra eta sei hilabeteko asto arra salgai (Durangaldea). Tel.: 630 28 74 58.

**Border collie txakur kumeak salgai.** Border collie txakur kumeak salgai, otsailaren 24an jaioak. Parasitoen kontrako tratamendua egina. Harremanetarako, telefonoz zein whatsapp bidez. Tel.: 685 750 917 / 665 725 262.

**Egurrezko gurdia.** Idi pareaaren egurrezko gurdia salgai. Egoera onean eta azken matrikulazioa 1965ean. 1.200 euro, negoziagarriak. Argazkiak whatsapp bidez. Tel.: 633-66 64 92.

**Gurpil-aulkia eta ohe artikulatuak salgai.** Gurpil-aulkia; erosi berria: 150 euro. Metalezko ohe artikulatua eta motorduna; egoera onean: 200 euro. Metalezko ohe artikulatua motor barik; egoera onean: 100 euro. Interesatuta egonez gero, deitu telefono honetara mesedez: 669-27 62 95.

**Oilar eta oiloak salgai.** Euskal arrazako oilar eta oilo gorriak eta australorp arrazakoak salgai. Tel.: 626-94 51 00 (Mikel).

### GALDU / AURKITU

**Betaurrekoak galdu ditut.** Aurreko astean betaurrekoak galdu nituen betsaide monumentu inguruan. Inork aurkitu baditu, deitu telefono honetara. Tel.: 605-76 14 34.

### GAINERAKOAK

**Artzain txakur iletsuarentzat ar bila.** Artzain txakur iletsu emeak kumeak izan ditzan, arraza bereko ar lasai baten bila nabil. Trukean, kume bat. Argazkiak whatsapp bidez. Tel.: 675-70 09 08.

**Ortua behar da.** Lur zatitxo bat behar da ortua egiteko. Javi. Tel.: 653-71 24 67.

## Ibilgailuak

### FURGONETAK

#### SALDU

**Volkswagen multivan comfortline 2.5 tdi 130 cv.** 7 eserleku, 5 ate, 3 aldeko klimatizagailua (turismoa). Errebisio guztiak tailer ofizialean. Tel.: 652-70 27 65 (Karmelo).

## Aisia - kirola

### KIROLAK

#### GAINERAKOAK

**Eskola kiroleko futbol jokalari infantilak behar dira.** Durangon Institituko eskola kiroleko futbol 11 talderako 6 jokalari behar ditugu. Infantilak 2004/2005 urtean jaioak. Entrenamentuak Arripausuetan: astelehena: 17-18:15, eguaztena: 15:45-17:00, eguena: 16:45-18:00 (eguenak: aste baten bai, hurrengoan ez...) 2017/2018 eskola kirola denboraldirako. Tel.: 652-75 02 93.

## Familia - etxea

### ETXERAKO TRESNAK / ALTZARIAK

#### SALDU

**Hozkailua salgai.** Zanusi markako hozkailua saltzen dut, 50 euroan. Izozkailua ez dabilen arren, hozkailua berri-berri dago. Tel.: 636-04 63 18 (Felisa).

### HAURREN TXOKOA, OSAGARRIAK

#### SALDU

**Ume 2 eramateko aulkia.** Ume bi eramateko aulkia saltzen da. Oso egoera onean dago. Amortiguazioa eta disko-balazta ditu. Aulkiarekin batera kapazu bat ere badago (estreinatu barik). 2 zaku umeak aulkian eramateko eta aulki Maclaren bat (bikotza). Tel.: 635-75 49 62. Posta: zamalloagz@gmail.com.

**Haurren Bebecar markako kapazu eta aulkia saltzen ditut.** Haurren Bebecar markako kapazu eta aulkia saltzen ditut, zaku eta guzti. Gehigarriak oparitzen ditut, (uretako babesa, eguzkitakoa, hamaka eta paseo aulkia bby markakoa). Dena egoera onean dago. Prezioa adosteko. Tel.: 686-96 63 73.

# AGENDA

ANBOTOko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi **agenda@anboto.org** helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



**Apirilaren 22an, 23:30ean, Elorrioko Gaztetxean**

## The Riff Truckers

Atzo hasi zituzten Elorrioko Erreka kaleko jaiak, eta domekara arteko egitaraua antolatu dute bertako hainbat tabernek eta Gaztetxeak. Bihar, The Riff Truckers Gernikako taldearen kontzertua eta Tasca Rock & Roll DJaren saioa izango dira.

## Erakusketa

### :: DURANGO

MAIATZAREN 1era arte

'Picasso Durangotik Gernikara' erakusketa, Arte eta Historia Museoan.

Endika Basagurenen 'Helmugak' erakusketa, Arte eta Historia Museoan.

### :: ZALDIBAR

APIRILAREN 29ra arte

Gervasio Sanchezen eta Mónica Bernaberen 'Emakumeak. Afganistan', Gallastegi burdindegia zegoen lokalean (Euskal Herria kalea, 24).

### :: ZORNOTZA

APIRILAREN 30era arte

Fernando Álvarez Charroren 'Figuraciones', Zelaietan.

## Musika

### :: DURANGO

APIRILAREN 23an

**13:00etan,** Itsua + Paddy Rekalde, Plateruenean.

APIRILAREN 27an

**20:00etan,** Kantulagun, Plateruenean.

## Ikastaroa

### :: BERRIZ

APIRILAREN 25ean

**18:30ean,** Elikagaien erabilera seguruari buruzko ikastaroa, Kultur Etxean.

## Kontalaria

### :: DURANGO

APIRILAREN 27an

**19:00etan,** Alberto Sebastianen 'Activas y resueltas', Bibliotekan.

### :: ELORRIO

APIRILAREN 21ean

**22:00etan,** ipuin kontalarien saioak, Arriolan.

### :: IURRETA

APIRILAREN 28an

**20:00etan,** Miguel Alacanten 'Cuentos entre sábana y manta', herri bibliotekan.

## APIRILEKO AGENDA

Iurreta Eleizateko Udala

| | |
|---|---|
| **21** | **ANTZERKIA ARETOAN** TEATRO IBARRETXE KULTUR ETXEAN<br>**17:00** AHATETXO ITSUSIA - GLU GLU<br>Sarrera dohainik - Gonbidapenak kultur etxean. |
| **23** | **XXXVII IURRETAKO HIRI PROBA**<br>**11:00** Kaskoan. www.bidezabal.org/iurreta2017 |
| **24** | **PAPEREZKO FROGAK** HAURRENTZAKO IRAKURKETA KLUBA<br>FRINDELA / ANDREW CLEMENTS<br>**17:00** LH-ko 5.maila.<br>**18:00** LH-ko 6.maila.<br>**EMAKUMEEN LITERATUR TAILERRA**<br>**18:15** "ESCRITORAS VASCAS TRADUCIDAS AL CASTELLANO"<br>**SAN MARKUEK 2017**<br>Iluntzian Doniel Atxa jasotzea eta ondoren makailau errea emango da, parte-hartzaileentzat. |
| **25** | **CINE FORUM IBARRETXE KULTUR ETXEAN**<br>READING CLUB<br>**18:30-20:00** And then there were none / Agatha Christie<br>**SAN MARKUEK 2017**<br>**12:00** Meza. Jarraian, herri bazkaria (eman izena jai batzordean)<br>**17:00** Briska txapelketa. Bikote bakoitzak 6 euro ordaindu beharko ditu. |
| **26** | **KULTURA SAILA** IBARRETXE KULTUR ETXEAN<br>CHARLAS PARA PADRES/MADRES Y EDUCADORES<br>**18:30** Hizlaria: Juan Carlos Alonso (Psikologoa) |

## Antzerkia

### :: BERRIZ

APIRILAREN 28an

**18:00etan,** El lagarto baila, Kultur Etxean.

### :: ELORRIO

APIRILAREN 28an

**22:00etan,** Jainko basatia, Arriolan.

### :: IURRETA

APIRILAREN 21ean

**17:00etan,** Ahatetxo itsusia, Ibarretxe kultur etxean.

### :: ZORNOTZA

APIRILAREN 28an

**21:00etan,** Perplejo, Zornotza Aretoan.

## Berbaldia

### :: DURANGO

APIRILAREN 26an

**19:00etan,** Jesus Rekalderen 'Guernica y los ladrones de auras', Museoan.

## Jaiak

### :: ELORRIO (Erreka kaleko jaiak)

APIRILAREN 21ean

**16:00etan,** Zumba, plazan.

**18:30ean,** Luhartz, plazan.

**21:30ean,** Kale animazioa Rust & Locks taldeagaz, Errebombillo kalean.

**00:00etan,** Audiovisual set, Gaztetxean.

APIRILAREN 22an

**10:00etan,** 3R azoka + Denda kalera, plazan.

**17:00etan,** pilota partiduak, plazako frontoian.

**19:30ean,** Elektrotxaranga.

**23:30ean,** The Riff Truckers + DJ Taska rock & roll, Gaztetxean.

APIRILAREN 23an

**Goizean,** Erabaki daigun! ekimena.

**12:00etan,** DJ Txurru.

**18:30ean,** Xaibor.

### :: IURRETA (Orómiño)

APIRILAREN 24an

**Iluntzean,** Donien Atxa jasotzea eta igel txapelketa.

APIRILAREN 25ean

**12:00etan,** Meza. Jarraian, herri bazkaria.

**17:00etan,** Briska txapelketa.

### :: MALLABIA (Berano Txiki auzoa)

APIRILAREN 22an

**17:00etan,** santuei kontuak esan eta jantzi.

**19:00etan,** Txopoa altxatzea. Ondoren, auzokideentzako afaria.

APIRILAREN 23an

**11:00etan,** meza. Jarraian, gazteen arteko desafioa. Ostean, lapiko apurtzea eta oilar harrapatzea.

**17:30ean,** Bertsolharitza ipuin antzerki kontakizuna.

**18:30ean,** Agarrera joan-etorria, emandako denboran.

### :: OTXANDIO

APIRILAREN 22an

**13:00etan,** Gaztetxoen pilota partiduak, plazan.

**17:00-20:00,** umeentzako puzgarriak, plazan.

**20:00-21:30 eta 23:30ean** Luhartzen erromeria.

## Aurkezpena

### :: BERRIZ

APIRILAREN 21ean

**20:00etan,** Miren Amurizaren eta Irati Egurenen 'Bainera bete itsaso' erakusketaren aurkezpena, Kultur Etxean. Maiatzaren 12ra arte egongo da erakusketa bertan.

## ZINEMA

### :: BERRIZ KULTUR ETXEA

**Igelen erresuma**
- **barikua 21:** 18:00
- **domeka 23:** 17:00

### :: DURANGO ZUGAZA

**John Wick. Pacto de sangre**
- **barikua 21:** 19:30-22:00
- **zapatua 22:** 19:30-22:30
- **domeka 23:** 18:30-21:15
- **astelehena 24:** 18:30-21:00
- **martitzena 25:** 20:00
- **eguaztena 26:** 20:00

**Cantábrico**
- **barikua 21:** 19:30
- **zapatua 22:** 20:00
- **domeka 23:** 21:15
- **astelehena 24:** 18:30-21:00
- **martitzena 25:** 20:00

**Fast & Furious**
- **barikua 21:** 22:00
- **zapatua 22:** 22:30
- **domeka 23:** 18:30-21:15
- **astelehena 24:** 20:30

**Nieve negra**
- **barikua 21:** 19:30-22:00
- **zapatua 22:** 19:30-22:30
- **domeka 23:** 19:30
- **astelehena 24:** 18:30
- **martitzena 25:** 20:00
- **eguaztena 26:** 20:00

**El bebé jefazo**
- **zapatua 22:** 17:30
- **domeka 23:** 17:00

**Los pitufos. La aldea escondida**
- **zapatua 22:** 17:00
- **domeka 23:** 16:30

**Igelen erresuma**
- **zapatua 22:** 17:00
- **domeka 23:** 16:30

**Jonas Kaufmann: My Italy**
- **eguaztena 26:** 20:00

### :: ELORRIO ARRIOLA

**Locas de alegría**
- **zapatua 21:** 22:00
- **domeka 22:** 20:00
- **astelehena 23:** 20:00

### :: ZORNOTZA ARETOA

**Life**
- **barikua 21:** 20:15
- **zapatua 22:** 19:30-22:00
- **domeka 23:** 20:00
- **astelehena 24:** 20:15

**Igelen erresuma**
- **zapatua 22:** 17:00
- **domeka 23:** 17:00

**El viajante**
- **martitzena 25:** 20:15




## > BOTIKAK

**BARIKUA, 21** · 09:00-09:00

**Unamunzaga**
Muruetatorre 2C - Durango

**Melero, Rosa Mari**
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar**
Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño

**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza

**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**ZAPATUA, 22** · 09:00-09:00

**Bazan Diaz**
Uribarri 5 - Durango

**Melero, Rosa Mari**
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-13:30

**Mugica**
Andra Maria 9 - Durango

**Unamunzaga**
Muruetatorre 2C - Durango

**Bazan Diaz**
Uribarri 5 - Durango

**Navarro**
Artekalea 6 - Durango

**Campillo**
Montevideo etorb. 24 - Durango

**Sagastizabal**
Askatasun etorb. 19 - Durango

**Balenciaga**
Ezkurdi plaza 8 - Durango

**De Diego**
Intxaurrondo 22. - Durango

**Bartolome**
Gabiola 2 - Berriz

**Larrañaga-Balentziaga**
Berrio-Otxoa 6 - Elorrio

**Eguren, Isabel**
Trañabarren 15 - Abadiño

**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza

09:00-14:00

**Irigoien**
Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar**
Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño

**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**DOMEKA, 23** · 09:00-09:00

**Mugica**
Andra Maria 9 - Durango

**Melero, Rosa Mari**
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**ASTELEHENA, 24** · 09:00-09:00

**Irigoien**
Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar**
Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño

**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza

**MARTITZENA, 25** · 09:00-09:00

**Gaztelumendi**
J.A. Abasolo 2 - Durango

**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar**
Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño

**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza

**EGUAZTENA, 26** · 09:00-09:00

**Campillo**
Montevideo etorb. 24 - Durango

**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar**
Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño

**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza

**EGUENA, 27** · 09:00-09:00

**Sagastizabal**
Askatasun etorb. 19 - Durango

**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar**
Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño

**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza

## > ZORION AGURRAK

zorionak@anboto.org
eguazteneko 14:00ak arteko epea

GOZOTEGIA gozatu ONDEGIA
Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
Gozatu Gozotegia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren arteantarta bat zotz egingo dugu. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrarekin batera.



> Bazkari gozo batekin ospatuko dogu domekan **Jabi**n urteguna. Zorixonak aitxa eta aitxitxa! Ibili eta ibili zabiz... jarraitxu energia eta kuriositate horrekin!



> **Naroa**k apirilaren 14an 10 urte bete dauz. Zorionak, neska haundi, amamaren, izekoren eta Lurren partez. Oso ondo pasau oporretan.



> Apirilaren 8an **Alize Lopez de Letona Barreras** jaio zan. Zorionak familiari lagun danen partez.



> Zorionak **Malen Ansorena Zelaieta** eta musu pila zure 12. urtegunean danon partez. Ondo pasa eguna.



> Zorionak, maitxia! 8 urte jadanik, oso harro gaude denok zutaz. Zorionak aitatxoren eta familia osoaren partez.



> **Peru**k 2 urte beteko ditu. Zorionak danon partez eta ondo pasatu eguna.



> Apirilaren 19an **Aimar**rek lau urte bete ditu. Zorionak danon partez eta batez be zure anaia Anerren partez.

anboto.org MUGIKORREAN
Available on the App Store
ANDROID APP ON Google Play



Albisteak, agenda
Telefono gida
Parte hartu
Herriko informazioa jaso

**Albisteak** eta **agenda**, bizkor eta eskura.
**Telefono gida** osatuena: zuzenean deitzeko aukera.
**Parte hartu**, galderak eginez, erantzunak lortuz.
**Pertsonalizatu**, zure herria aukeratuz.
**DESKARGATU DOAN !**

**Akuilua**

**Iker Salterain Alberdi** | Hegoamerikan zehar bidaiatzen ari da bizikletan | Abadiño, 1989

# “Kultura eta ohitura desberdinekin topo egiteak erakarri egiten du”

Azaroan Costa Ricara irten zen Abadiñotik Iker Salterain. Kubatik heldu berri, Mexikon topatu dugu

**> AKUILUA** Aitziber Basauri

**Queretaron (Mexiko) harrapatu dugu Iker, bertan bizi diren Txomin eta Maitane lagunen etxean. Azaroan irten zen Abadiñotik, Costa Ricara bidean, “amets bat egia bihurtzeko”, eta ez daki Euskal Herrira noiz bueltatuko den.**



**Zerk eroan zaitu abenturara?**
Negua sartu orduko irten nintzen Abadiñotik, azaroan. Latinoamerikatik denbora luzez bidaiatu, han bizi, presa eta helmuga argi barik bidaiatu… beti gura izan dut amets hori egia bihurtu. Hango kultura, komunitateak, pertsonak, egoerak… ezagutu, ikusi eta esperientzia horregaz nire barrua aberastu. Norbera ezagutzeko aukera ona ere badela uste dut.

**Costa Rican hasi zenuen abentura hau, lagun bategaz.**
Gazteluko lagun on bategaz, Arkaitzegaz. Hark oporrak hartu zituen Costa Rica eta Panama bizikletan ezagutzeko, eta plan horretara batu nintzen. Sei aste egin ostean, etxera joan zen, eta ni Kubara.

**Fidel Castro hil eta gutxira iritsi zinen. Nola ikusi zenuen herrialdea?**
Oso triste. Orokorrean, triste daude kubatarrak, umezurtz geratu direla diote. Kuba berezia da. 2014tik urtero joan naiz, Viñalesen proiektu soziokultural komunitario batean ari naiz-eta, baina ez da erraza lau lerrotan hango egoera azaltzea. Joatera animatzen zaituztet. Ezagutu beharreko lurralde ederra da. Hori bai, turismotik ihes egin eta zoazte herri txikiak ezagutzera. Benetako Kuba.

**San Blas eguna Silvio Rodriguezen kontzertu batean ospatu zenuen. Herriminik bai?**
Itzela izan zen! Beste amets bat egia bihurtu dut: Silvio ikustea, Kuban. Bai, Abadiñoren falta sumatzen dut. Mendiak, etxekoak, lagunak… Baina denbora eta aukera mordoa egongo da.

**Bizikleta duzu lagun bakarra?**
Lagunik onena dela esan daiteke (barrez), baina ez da bakarra. Orain Elorrioko Ane batu da. Bizikletan bidaiatzea magikoa da, libre sentitzen zara, gura duzun tokira heldu zaitezke eta naturaz kontaktu zuzena izan. Laugarren bidaia dut bizikletan eta oso gustura nabil. Probatu, ez zarete damutuko!

**Abadiñar asko joan zarete hara. Zer du inguru horrek?**
Bidaiatzeko fama behintzat badugu. Bidaiari batzuek esan didate abadiñarrak ezagutu dituztela; oso bitxia izan da. Kultura eta ohitura desberdinekin topo egiteak erakarri egiten du; jakin-minak, besteengandik ikasteko gogoak ere bai. Oso gutxigaz bizi daitekeela ohartzen zara, solidario izatea zer den, natura… Gaztelaniaz egin ahal izatea ere abantaila itzela da.

**Esperientzia ona izaten ari da?**
Etxean lez denetariko bizipenak izan ditut. Gehienak oso onak eta aberasgarriak. Baikorra naiz eta oso gustura nago, gauza txarrak alde batean utziz.

**Zerk harritu zaitu gehien?**
Herri bakoitza desberdina da, baina, oro har, oso zabalak dira, ezagutu barik laguntzeko prest daude. Bizitzeko patxada itzela dute, harrigarria. Naturagaz eta animaliekin zoratuta nabil. Baina ez da dena zoragarria, umeak edo nagusiak eskean ikusteak barrena astintzen dit.

**Noiz bueltatuko zara?**
Batek daki! Mexikon hiru bat hilabetez ibiliko gara. Gero, hegoaldera joan gura dugu: Guatemala, Honduras, Nikaragua…

## LAUHORTZA

**UXUNE MARTINEZ MAZAGA**
Soziologoa



### Mihi gezurtien ibilbidea

Haurrek txikitan antzematen dute zer den gezurra. Hiru-lau urte bete ondoren ematen diote hasiera gezurrak esateari.

Ikerketek diotenez, umeek hainbat arrazoi dituzte gezurretan hasteko. Adibidez, zigorra ekiditeko, minik ez emateko edota zerbait lortzeko. Egia esan, gutxi dugu haurrei leporatzeko, izan ere, gurasook txikitatik esaten dizkiegu gezurrak. Gabonetako gezur-andana, esaterako.

Bitxia bada ere, gure garuna ohitu egiten da gezurrak esatera. Hori da Londresko University Collegeko ikertzaileek ondorioztatu dutena egindako lan batean. Zenbat eta gezur gehiago esan orduan eta erosoago sentitzen gara. Hasieran gaizki sentitzen bagara ere, gure garunak albo batera uzten du gezur bat esaterakoan sentitzen dugun lehen uneko ezinegona. Hortik aurrera errazagoa egiten zaigu gezur handiagoak botatzea.

Honen gakoa gure burmuinean dagoen amigdalak du. Amigdalak gure erantzun emozionalak prozesatzen ditu: beldurra, poza, tristura, ustekabea, higuina eta haserrea. Lehenengo gezurra esaterakoan amigdalak sentipen negatiboa sortzen du, higuina, ezinegona sortzen digu, eta horrek gerarazten du hurrengo gezurra. Baina bigarren bat esaten badugu, amigdalaren erantzun ezkorra ez da izango lehena bestekoa, makaldu egingo da, eta hurrengoarekin are gehiago. Behin amigdalaren langa gaindituta eragozpen gutxiago ditugu zurikerietan ibiltzeko.

Ikertzaileek ondorioztatu dutenez, txarto dagoenari edo immorala deritzogunari higuina dio gure amigdalak, baina higuina lausotuz doa gezurrak errepikatzen ditugun neurrian, eta gero eta errazago botatzen ditugu.

Hortxe hasten da, antza, mihi gezurtien ibilbidea.

